ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2008ko ekainaren 16a > Astelehena > VI. urtea > 194. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Jakin badakigu aurrerapenak lortu badira ere oraindik asko dagoela egiteko"

**Urko Aierbe**
Kontseiluko kidea > 06

**G2a** Elgetako Motor Jaia: zarata atsegina herriko kaleetan > 23

**OÑATI**
Arrikrutzen urteurrenean bisita bereziak egingo dituzte > 12

**KIROLA**
Asier Apezetxea nagusi Arrasaten, Mendiko Bizikleta Sarian > 19

**KULTURA**
Haurren danborrada zapatuan, San Juan jaien atarian > 24



ETSITA Mikel Aranburu realzale baten animuak jasotzen, atzoko partiduaren ostean, Anoetan. Atzean, Xabi Prieto. Realak kale egin zuen azken partiduan, Kordobaren aurka berdinduz. ARGAZKI PRESS

**FUTBOLA** > 2. MAILAKO AZKEN JARDUNALDIA

# Porrot egin arren, zaleak txuri-urdinekin

**REALA** Txuri-urdinek bigarren mailan jarraituko dute; Sportingek eta Malagak ez zuten hutsik egin

**ANOETA** Realak bana berdindu zuen Kordobaren aurka, partidu txarra eginez > 16-17

**EGURALDIA** > UDA

## Sargoria eta eguraldi nahasia udan

Pello Zabala adituaren udarako aurreikuspena > 03

**ARRASATE** > ELKARTASUNA

## Festa eta aldarrikapena bat eginik

Hirugarren Elkartasun Eguna Arrasaten zapatuan > 04

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**ARRASATE** > GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

## Elkartasun festan 4.000 euro inguru batu zituzten

Jende ugari batu zen zapatuan Arrasateko Seber Altube plazan egindako elkartasun festan. Gobernuz kanpoko erakundeak pozik azaldu ziren jasotako herritarren partetik jasotako erantzunarekin. Besteak beste, Arrats, Nagusilan, SOS Arrazakeria, Zero Pobrezia edota Nubi elkarteek hartu zuten parte zapatuko jaian. Harremanek, Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak antolatu zuen jaia.

Harremanek 4.000 euro inguru batu zituen eta Indiako umezurtz etxe batera bideratuko dute jasotako dirua. Besoetako haurrak hartzeko proiektua babesten dabil harreman elkartea Indian, besteak beste. > 09

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
uztaileko zozketa

Irabazle izan zaren jakitea nahi?

> Ikus 2. orria

Goienkaria
ASTELEHENEKO
astelehenean, aste bukaera osoa

# Harpidedunen txokoa

**PARTE HARTZEKO**

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

## Ekaineko sari nagusia

Zu izan zara irabazlea, zorionak!

**ANNE LOPEZ ZUBIA**
(Bergara)

**GETARIAKO ASTILLERO JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO BAZKARIA**




## Uztaileko zozketa

**DVD-a**

EROSKI zurekin



Bidali AG DVD 5533 zkra

**KAMISETA + POLTSA**

skunkfunk



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

**KAMISETA + ALPARGATAK + CD-ak**

karrikiri
Iruñeko euskaldunon elkartea



Bidali AG EUSKALPRO 5533 zkra

## SARI NAGUSIA

**PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA**

**HONDARRIBIKO LANDETXE BATEAN GAU BAT**

Zozketan sartuko dira: 08-06-16tik 08-07-09ra jasotakoak



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena getionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

**EGURALDIA** > TENPORAK

# Eguraldi nahasia eta sargoria; horixe da aurtengo udarako aurreikuspena

**TENPORAK** Udan 'bero ez sanoa' izango dugula aurreratu digu Pello Zabala ezagunak

**SAN JUAN** "Ea oraingo asteko ilargi beteak zerbait argitzen digun... Baliteke San Juanetarako atertzea eta argitzea"



Udaberria ohi baino euritsuagoa gertatu da. Argazkian, maiatzaren 25ean Aretxabaletan izandako uholdeak. JOSE LUIS CABALLERO

**MIREN ARREGI/E. MENDIBIL** > BERGARA
"Negu giroa egin du udaberrian eta, udan, giro umela ekarriko du horrek. Baina ilargiaren lau faseetako bat besteekiko ezberdina izaten denez, baliteke hilean zazpi-zortzi egun onak izatea", adierazi digu Pello Zabala fantziskotar ezagunak. Zabalaren arabera, udaberria euri askokoa izaten da neguak urik ematen ez duenetan eta halaxe gertatu da aurten. "Ez da izan negu normaletakoa: epela eta eguzkitsua, batez ere otsaila partean. Euritan, 222 litro jaso genituen Arantzazun eta hiru ilargi aldik hori bakarrik ekartzen badute, pentsa daiteke ekarriko duela gehiago beranduago... Eta hala izan da: Aste Santuaren ostean, astebetean bakarrik, euri kopuru bera izan genuen, 222 litro, negu guztian jasotakoa. Azken ilargiaren faseak, oraindik astebete falta arren, 240 euri litro ekarri dizkigu. Aldean behin izaten dira ziklo nahasi samarrak, hiru, bost, zazpi hilabetekoak eta horietako baten gaude. Euria ekartzeko iparreko haizea ibili behar du tartean... Mapatan hiru aste hauetan izan duguna neguan tokatu izan balitz, elurra izango genuke metroka..., eskerrak euritan tokatu den".

**NEGURIK EZ BADA, UDARIK EZ**
Pello Zabalak gogoratzen duenez, "negurik ez bada, udarik ez dela izango dio esaerak". Gauzak horrela, udan hezetasuna eta lainoak nagusi izango direla iragartzen du: "Esaterako, mendebaldeko haizea eta ipar-mendebaldeko borrokan jartzen direnean ez dago gauza onik... Lainoak tarteka kendu ezinik ibiltzea ez gozoa izaten eta behe lainoak nahiko presentzia izango du. Bi ordu aurreratuta nola gabiltzan, horrek ekartzen du bere kaltea, udan batez ere".

San Juan eguna gainean dugula zera esan digu Pello Zabalak: "Lainoak, gainetik kendu ezin ditugula eta arratsalde partean, beheko beroarekin ekaitzetarako joera, hori izan da datozen hiru hilabeteotarako geratu zaigun eguraldia. Ea oraingo asteko ilargi beteak, eguaztenekoak, zerbait argitzen duen... Dena dela, ez daukat fede handirik... Edozein modutan, baliteke San Juanetarako atertzea eta argitzea".

**EGUZKI 'EZ SANOA'**
Udan eguzki ez sanoa izango dugula dio: "Gertatzen da zenbaitetan 24 gradu izatea, baina 30 balira moduan sentitzea. Tenporek bero ez sano hori aurreratu dute. Abuztu erdialdetik aurrera ea izaten dugun udazken polit baten pregoia".

## Uda denboraldia astebete atzeratuko da Arrasateko igerilekuan

Azken asteotan izan ditugun eurien ondorioz, Arrasateko Musakolako kanpoko igerilekuaren zabaltzea astebete atzeratu dute. Hasiera baten, gaur, astelehena, zabaltzekoa zen uda denboraldia, baina datorren zapatuan, hilaren 21ean, irekiko dute. "Neurri hau eguraldi txarra dela medio hartu behar izan dugu" diote Aukeako ordezkariek.

Bergaran, Agorrosinen, gaur zabalduko dute kanpoko berdegunea eguzkia hartu ahal izateko. Edozelan ere, ez dago eguraldi ona iragarrita. Badirudi eguzki kremak itxaron egin beharko duela. Bainua hartzeko barruko igerileku estalia erabiltzen jarraituko dute Bergaran. Datorren urterako, jolaserako bainu tokia bukatuta egotea da asmoa. Aurten, nobedade gisa, Udal Liburutegiko liburuak alokatu ahal izango dira Agorrosinen. Gainerako udal igerilekuetan ere eskaintza berezia daukate eta ezin ahaztu Usakoko bainu-tokia eta Udalako igerilekua, Uxarten.



SVMS SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

**POLITIKA** > III. ELKARTASUN EGUNA

# Hirugarren Elkartasun Egunak festa eta aldarrikapenak uztartu zituen zapatuan

Haurren txokoa, herri kirolak, herri bazkaria eta kontzertuetaz gain, eguerdi partean egindako ekitaldian herriko preso politikoak eta euren senideak izan ziren protagonistak

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE
Portaloira elkarteak antolatuta, haurren txokoak eta herri kirolen erakustaldiak bete zituzten hirugarren Elkartasun Eguneko lehenengo orduak. 13:00etan manifestazioari hasiera eman zitzaion eta plazatik abiatu eta herriko kaleetan barna, Monterroneraino heldu ziren.



Monterron parkean egin zen manifestazio osteko ekitaldi politikoa. GOIENKARIA

**MANIFESTAZIOA ETA EKITALDIA**
Herriko preso politikoen argazkiez gain, hiru pankarta ere atera zituzten manifestazioan, presoen, senideen eta torturatuen egoera hobetzeko, Arrasaterendako askatasuna eskatuz. Eguneko ekitaldi nagusia Monterron parkean egin zuten. Preso politikoek eta euren senideek jasaten dituzten gehiegizko zigor eta torturak salatu zituzten bertan, eta egunotan epaituak izaten ari diren Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideenganako elkartasun hitzak ere entzun ziren, presoen senideekiko egiten duten lana goraipatuz. Bazkari herrikoia egin zuten ondoren, eta arratsalde eta gauean kontzertuen txanda izan zen.

**BAHIKETA**

## Playa de Bakioko marinelak, deklaratzen

Andreu epailearen gelderei erantzun zieten bost marinel euskaldunek

**T.M.** > BERGARA
Audientzia Nazionaleko Fernando Andreu epailearen eskariz, jasan zuten bahiketari buruz deklaratzen egon ziren Bilbon pasa den egubakoitzean Playa de Bakio atunontzi bost marinel euskaldunak, tartean Mikel Arana arrasatearra.

**ERRESKATEARI BURUZ**
Bakoitzak bataz beste 20 minutu eman zituen deklaratzen eta epaileak, ustez ordaindutako erreskateari buruz zerbait zekiten galdetu zien. Denek ere gauza bera erantzun zioten epaileari: ez zituztela eurak aske uzteko aurrera eramandako negoziazioen xehetasunak ezagutzen, eta ez zekitela erreskaterik ordaindu zen edo ez.

**INDUSTRIA** > HITZARMENA

# Fagor Industrialek hitzarmena Jinda Steelekin

Aldi baterako elkarlan akordioa sinatu du Indiako altzairu fabrikatzaile handienetakoa den Jinda Steelekin.

**M.A./T.M.** > OÑATI
Egubakoitzean sinatu zuten Oñatiko Fagor Industrialek eta Indiako Jinda Steel enpresak aldi baterako elkarlanerako akordioa.

Jinda Steel enpresa 1952an sortu zen, eta gaur egun xafla galbanizatuak eta altzairuzko bobinak egiten dituen Indiako sektore pribatuko lehen fabrikatzailea da. 12 fabrikazio planta ditu Indian, eta beste bi AEBetan. 7000 langile ditu guztira.

**ZERBITZU ZENTRO BERRIA**
Bi enpresen arteko hitzarmenetik, JSL España izeneko zerbitzu zentroa sortuko da, eta Fagor Industrialek Kordoban duen biltegiaren ondoan egongo da kokatuta. Bertan, Indiatik zuzenean inportatutako bobinekin neurrira egindako formatuak ekoiztuko dituzte espainiar merkaturako.

Ebaketa linea irailean egongo da martxan, eta bi enpresen artean lehen urtean 18000 tona xafla ekoiztea aurreikusten dute.

**LEHIAKORTASUNA**
Fagor Industrialeko zuzendari nagusi den Kepa Bedialauneta eta Jinda Steeleko lehendakariorde eta zuzendari nagusi den Ratan Jindalek sinatu zuten hitzarmena Oñatin egin zuten ekitaldian.

Bedialaunetak adierazi zuen hitzarmen honek Fagor Industriali fabrikazio kostuetan lehiakorra izatea ekarriko diola , eta entrega zerbitzu hobea izango duela.



**SINADURA EKITALDIA** Egubakoitzean sinatu zuten akordioa Oñatin. MIREN ARREGI

KULTURAK BATZEN GAITU
Erakusketa: Sabin Oregi zarauztarraren argazkiak ekain osoan.
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA
Astelehenetik barikura
eguneko menua
Asteburuetan
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak
Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

**BERGARA** > EUSKARA

# Kontseiluaren 10. urteurrena ospatzeko ekitaldiak

Berbak eta Kontseiluak antolatuta, euskararekin lotutako ekitaldiak astean zehar Bergaran

**E. MENDIBIL** > BERGARA
Kontseiluaren 10. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, Euskaraz Bai astea ospatuko da Bergaran, gaurtik egubakoitzera bitartean. Hain zuzen ere, ibarrean Bergarak jasoko du Kontseiluaren ekimena, Bergarako Euskaltzaleon Biltgunearen laguntzaz. Jardun euskara elkarteak, EHEk, AEKk eta Aranzadi Ikastolak osatzen dute Berba.

**ERAKUSKETA UDALETXEAN**
Esan bezala, gaur, astelehena erakusketa ibiltaria zabalduko dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Artemanek prestatutako *Kontseilua 10 urte bidea eraikitzen* erakusketa egubakoitzera arte izango da ikusgai, 17:30etik 21:00etara. Euskarri informatikoen eta panelen bitartez Kontseiluak azken hamarkadan egindako lana erakutsiko dute bertan.

Bestalde, etzi, eguaztena, Kontseiluko kohesio ildoaren arduraduna den Urko Aierbek berbaldia egingo du udaletxean, 19:00etan. Etorkizuneko erronkak aztergai izango ditu Aierbek, besteak beste.

Eguenerako, berriz, kale ekimena iragarri dute Munibe plazan, 19:30ean. Alde batetik euskararekin lotutako argazkiak (txalotzekoak zein salatzekoak) erakutsiko dituzte eta bestetik, jendearen laguntzaz, Euskaraz bai logotipo erraldoia osatuko dute. Antolatzaileek dei egiten die herritarrei egueneko ekitaldian parte hartzeko.

Bukatzeko, egubakoitzean, hilaren 20an, Euskaraz Bai adierazpenari atxikimendua ematen diotenekin ekitaldia egingo dute udaletxean, 19:30ean. Norbanako, talde, erakunde, elkarte mordo batek egin du bat aipatutako adierazpenarekin.


Kontseiluak eta Berbak antolatu dituzte ekitaldiak. GOIENKARIA

**ESKORIATZA**

# Aste Zapatista, gaurtik Eskoriatzan

**E.M.** > BERGARA
Gaur, astelehena, hasiera emango diote Eskoriatzako eta Aretxabaletako zapatisten lagunek antolatutako ospakizun asteari. Gasteizkoak kolektiboaren eskutik, *Kasko urdinen alde iluna* hitzaldia izango da gaur kultura etxean, 19:30ean. Gauean, 22:15ean, *Antimilitarista* filma eskainiko dute Naira tabernan.

Bihar, martitzena, Yurrek indigenekin izandako esperientziak azalduko ditu erretiratuen egoitzan, 16:30ean eta ondoren kooperatiben gaineko hitzaldia izango da kultura etxean, 19:30ean. Aldatz tabernan Chiapaseko kooperatiben eredua aztergai izango dute bihar, 22:15ean. Astean zehar beste hainbat ekitaldi izango dira eta zapatuan, jaiari amaiera emateko, herri bazkaria.

**ELKARTASUNA** > SAHARA

# Saharako haurrak jasotzeko diru faltan

**E.M.** > BERGARA
Aretxabaletako Iesbaa eta Arrasateko Nubi Sahararen aldeko elkarteek dirua biltzeko lanean dihardute. Egubakoitz arratsaldean festa egin zuten Aretxabaletan eta zapatuan Arrasaten izan ziren, hainbat gobernuz kanpoko erakundek antolatutako jaian. Agurne Juldain Nubiko kidearen hitzetan, "oraindik ez dugu lortu Saharako haurren eta begiraleen egonaldia ordaintzeko behar beste diru. Gure kalkuluen arabera, 20.000 euro behar ditugu eta 12.000 jaso ditugu". Kontu korronteak zabalik dituzte Euskadiko Kutxan, Kutxan eta La Caixan. Interesatuek 685 72 48 17 telefonora (Agurne Juldain) deitu dezakete. Hasiera baten, 7-8 urteko 12 haur etorriko lirateke hurrengo astean, bi hilabeteko egonaldirako. Iesbaa, Nubi, Frente Polisarioa eta Arabako Diputazioa elkarlanean ari dira.


Egubakoitz arratsaldean festa egin zuten Durana kalean.

> OSASUNA

### Osteoporosiaren gaineko jardunaldia eguenean Otaloran

Debagoieneko Ospitaleko Kirurgia Ortopediko eta Traumatologia Zerbitzuak antolatuta, eguenean, hilaren 19an, osteoporosiaren gaineko ikastaroa egingo dute Aretxabaletako Otalora jauregian, 11:30ean. Hainbat doktorek hartuko dute parte egueneko jardunaldian: besteak beste, Debagoieneko Ospitaleko Iñigo Etxebarriak eta Jose Ramon Serranok, Madrileko Esteban Jodarrek edo Granadako Manuel Muñozek.



*Euskaraz bai* egitasmoa abiarazi du Kontseiluak, haren 10. urteurrena betetzen den honetan. *Euskaraz bai* adierazpenaz, eta abenduan BEC-en urteurrenari amaiera emateko egingo den itxiera ekitaldiaz gain, *Euskaraz bai* astea antolatu du hainbat herritan; oraingo astean Bergaran izango da, eta beste ekimen batzuen artean, Aierbek berbaldia egingo du eguaztenean udaletxen, 19:00etan.

**Urko Aierbe** > Kontseiluko Kohesio Ildoko Arduraduna

# "Jakin badakigu aurrerapenak lortu badira ere oraindik asko dagoela egiteko"

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

**Kontseiluko Kohesio ildoaren arduraduna da Urko Aierbe donostiarra eta bi urte daramatza bertan lanean. Euskararen gizarte erakundeen Kontseiluak 10 urte bete ditu aurten eta urteurren horren baitan abiarazi duten *Euskaraz bai* egitasmoaren gainean aritu gara harekin berbetan, besteak beste.**

***Bai Euskarari* ekimenetik 10 urte pasatu dira. Orain zergatik *Euskaraz bai*?**

10. urteurrenaren aitzakian, ikusi genuen aukera polita zela, alde batetik 10 urte hauetan egindako lana oroitaraztea, baina horrekin batera, aukera egokia iruditu zitzaigun aurrera begirakoaz hausnarketa egiteko. Hausnarketa horretan lan ezberdinak burutzen ari gara. Abenduan egin genuen ezohiko batzarrean onartu genuen *Euskaraz bai* adierazpena, 10. urteurrenarenaren ardatza izango dena, baina era berean 10. urteurren honekin abiatu nahi dugun garai berriaren oinarria ezarriko duen adierazpena.

**Zer lortu gura du *Euskaraz bai* adierazpenak?**

Eboluzio bat irudikatu nahi dugu. Duela 10 urte Kontseilua hasi zen *Bai Euskarari* ekimenarekin; berez, aurreko hamarkadetan euskalgintzak sarri erabili izan duen aldarrikapena zen, eta guk egiten dugun hausnarketa da, hamarkada hauetan egindako lanari esker *Bai Euskararik* irudikatzen duen aldekotasun hori lortua dugula hein handi batetan. Herritarrek, eragileek, instituzio gehienek euskarari baietz esaten diote, hau da euskararen alde daudela diote. Behin hori lortuta, bada garaia aldekotasun horretatik haratago joango den urrats bat emateko. *Euskaraz bai* aldarrikapenarekin, alde egote horretatik norberari dagokion urratsa ematerako jauzia egin nahi dugu; ez dakienak ikasi dezala, erabiltzen ez duenak erabili dezala, eragileek espazioak euskalduntzeko ahalegina egin dezatela, instituzioek euskarari dagokion tokia bermatu dezatela...

**Egitasmoaren baitan, *Euskaraz bai* adierazpena prestatu duzue. Zer suposatzen du horrek?**

Helburua ez da atxikimendu bilketa masibo bat egitea. Nahi duguna da atxikitzearen urrats horrekin zabaltze lan bat egitea. Horretarako sektorez sektore ari gara adierazpena aurkezten, nolabait bat egin dezaten guk plantetzen dugun horrekin.

**Zer da erakusketa ibiltariak erakusten duena?**

Erakusketarekin 10. urteurrenaren lehenengo partea biltzen dugu. 10 urte hauetako lana jasotzen da, hiru formatutan. Alde batetik ikus -entzunezko bat dago; bigarren euskarria panel batzuk dira, hor aipatzen dira Kontseiluaren egitasmo nagusiak; eta hirugarren euskarria aplikazio informatiko batzuk dira. Hemen, era zabalago batetan, beste euskarrietan jasotzen dena azaltzen da.

**Nola azalduko zenuke Kontseiluaren ibilbideak izan duen bilakaera?**

Areagotuz joan den lan bat bezala. Sorreran Kontseilua oso txikia izatetik, bai fisikoki zein egitasmoen aldetik, urtez urte geroz eta handiago bilakatu den elkartea da. Gero eta egitasmo eta erronka handiagoei heldu die, bazkide gehiago integratu dira. Euskararen unibertsoa eta euskalgintza batu zenean euskararen egoeraz eta beharrez hausnarketa egiteko, ikusi zen euskalgintzak ordura arte abiatutako egitasmoak gainditutko zituen bestelako egitasmo sakonagoak, estrategikoagoak garatuko zituen eragile bat behar zela. Hau da, indar metaketa bat behar zela; horretarako sortu zen Kontseilua. Hasieran ametsak besterik ez zirenak, gorpuztuz joan dira.

**Euskalgintza asko aldatu da?**

Bai, asko. Guk ikusten duguna da euskalgintzak sendotasuna eta errekonozimendua lortu duela euskaldunen artean eta instituzioen aurrean. Garai batetan proiektu txikiak zirenak, oso baldintza eta egoera zailetan sortutako egitasmoak zirenak, sendotasun handia lortu dute. Garai batetan amets ziren proiektuak sortu dira eta euskara, sarbiderik ez zuen esparru askotara ere zabaldu da; teknologia berriak, hedabideak... Pixkanaka ari dira proiektuak gauzatzen eta sendotzen eta hori ezinbestekoa da euskara normalizatuko bada.

***Bai Euskararik* Euskal Herriko bost futbol zelai euskaltzalez bete zituen. Halako ekimenak beharrezko ditugu euskaldunok?**

Estadioak betetzeak sortu zuen giroa eta bultzada gaur egungo egoerara iristeko baliagarria izan zen. Egia da aldiro beharrezko dugula nolabaiteko autoafirmazio hori, indarrak metatze hori... 10. urteurrenarekin beharrezkoa ikusten genuen antzerako zerbait egitea, aurrera begira bultzada berri bat emateko. Hala, abenduaren 13an izango da 10. urteurreneko itxiera ekitaldia Barakaldoko BEC-en.

**10 urte hauetako zein balorazio egiten duzue? Euskal Herrian euskal hiztun gehiago dago?**

Kontziente gara aurrerapausoak egin ditugun arren oraindik hutsune handiak ditugula. Ezagutzari dagokionean gainera, Euskal Herriko hainbat tokitan galera ematen ari da eta erabilerak ere ez du egoera normalizatu batek izan beharko lukeen erabilera maila; hor zeregin handia dugu, azken finean funtzio sozial guztiak euskaraz burutu nahi ditugu eta jarraituko dugu lanean, helburu hori lortze bidean.




Urko Aierbe Kontseiluko kohesio arduraduna da; *Euskaraz bai* astearen baitan hitzaldia egingo du Bergaran. KONTSEILUA

EUSKARAZ BAI

**"Euskararen alde egotetik norberari dagokion urratsa ematerako saltoa da *Euskaraz bai*"**

ERAKUSKETA IBILTARIA

**"Erakusketa ibiltariak Kontseiluaren 10 urte hauetako lana eta bilakaera jasotzen du"**

EUSKALGINTZA

**"Sendotasuna eta errekonozimendua lortu ditu euskaldunen eta instituzioen artean "**

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> 80 urtetik gorakoen jaian izenematea**
Urtero San Juanetan egiten duen moduan, Udalak 80 urtetik gorakoendako omenaldia antolatu du. Parte hartzeko, izena eman behar da hilaren 18a baino lehen. BAZera joan behar da, eta Nortasun Agiria erakustea derrigorrezkoa da.

DONOSTIA
**> Uned-Bergarak, hitzaldi informatiboa**
Bergarako Uned unibertsitateak bere eskaintzaren berri emango du bihar, martitzena, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, 19:00etan. Interesa duen edozein joan daiteke.

ANTZUOLA
**> Haurreskolan matrikula egin daiteke**
Antzuolako haurreskolan urrian hasteko matrikula egin daiteke. Argibideetarako, joan haurreskolara, 13:00etatik 14:30era.

ARRASATE
**> Arrasate Rugby Taldeko zozketa**
Joan den aste bukaeran, zozketa egin zuen Arrasate Rugby Taldeak, eta hauek dira zenbaki saridunak: 1.070, 554 eta 852. Saria da nekazal turismo baten aste bukaera bat. Argibideak: *www.arrasaterugby.eu/web/arrasaterugby/eus/index.asp*.

ARRASATE
**> Geriatria laguntzaile ikastaroa, gaur**
Arizmendi ikastolaren Lanbide Heziketa Inemek diruz lagundutako Geriatria laguntzaile ikastaroa ematen hasiko da gaur, astelehena. 315 orduko ikastaroa da.

BERGARA
**> Udarako irteerak 12-18 urte artekoendako**
Honako irteerak antolatu ditu Udalak: Ebro ibaian raftinga (13-18 urte), Arcachongo Aquaparkera (12-18 urte) eta kanoa zeharkaldia Urdaibain (12-18 urte). Izenemate epea zabalik dago. Argibideak: 943 77 91 00.

ARRASATE
**> Udarako, bi ikastaro trinko dago AEK-n**
Udarako, bi euskara ikastaro trinko antolatu ditu AEK euskaltegiak, 16 urtetik gorakoendako. Uztailean eta irailean izango dira, hilabete bakoitzean hiru astean, egunero hiru orduan. Argibide gehiago, 943 77 03 69 telefonoan edo *arrasate@aek.org* posta elektronikoan.

ANTZUOLA
**> 1967 eta 1968an jaiotakoen ospakizuna**
1967an eta 1968an jaiotako antzuolarrek batera afaltzeko aukera izango dute hilaren 28an Ongi Etorri jatetxean. Izena emateko, deitu 600 67 66 01 telefonora (Iñigo) edo joan Aixa frutategira edo Peli okela dendara.

ARRASATE
**> 1958an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1958an jaiotako arrasatearrek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 8an, Baster-Alde jatetxean. Parte hartzeko, 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 57 0010112788.

ANTZUOLA
**> Jaietako domekan Larrain dantza egiteko entseguak etzi, eguaztena, hasiko dira**
Antzuolako jaietako domeka iluntzean, Larrain dantza egingo dute. Hori ikasteko entseguak egiten hasiko dira etzi, eguaztena, herriko eskolan, 20:00etan, eta antolatzaileek parte hartzeko animatu nahi dituzte herritarrak. Uztailaren 20an, jaietako domekan, 20:15ean egingo dute Larrain dantza.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> 1964an jaiotakoek bazkaria izango dute**
1964an jaiotako oñatiarrek batera bazkaltzeko aukera dute uztailaren 19an, Etxe Aundi jatetxean. Izena emateko, sartu 30 euro Euskadiko kutxako 3035 0005 36 0050044096 kontuan.

BERGARA
**> Udal Euskaltegiaren 25. urteurren afaria**
Udal Euskaltegiak afaria antolatu du ekainaren 20rako, 25. urteurrena ospatzeko, eta inoiz euskaltegiarekin loturaren bat izan duten guztiak daude gonbidatuta. Txartelak euskaltegian bertan edo 943 76 44 53 telefonora deituta lor daitezke.

ARETXABALETA
**> Gurasoei aurkeztuko diete Udaero programa**
Udaero aisialdi programa antolatu du Udalak 12 eta 16 urte artekoendako, eta gurasoei horren berri emango die eguenean, hilak 19, gaztelekuan (Iralabarri plaza), 18:00etan.

BERGARA
**> Lehen Hezkuntzako umeendako udalekuak**
Antxintxika izeneko udalekuak antolatu ditu Jardunek. Irailaren 1etik 4ra izango dira, Hondarribian. Bergarako Lehen Hezkuntzako edozein umek eman dezake izena. 52 euro dira; Jarduneko bazkideendako, berriz, 49 euro.

## etxeko leihotik



**Edu Mendibil** > emendibil@goiena.com

# Kirola da, besterik ez, pozak... eta tristurekin

Miguel Indurain handia miresten nuen bere garaian, ez Frantziako errepideetan jaun eta jabe zelako, baizik eta irabazten bakarrik ez, galtzen zekielako. Dotorea eta umila zen nafarra, kirolari askoren eredu. Gogoan dut zein apal onartu zuen bere onena emanda zuela, bost Tour irabaztearekin *nahikoa* zela, beste norbaiti errelebua emateko ordua iritsia zela.

Tankera berdina hartzen diot beste nafar bati, atzoko finalean galtzaile atera zen Abel Barriolari. Jarraian galtzen duen seigarren finala du atzokoa eta nahiago izan zuen partiduaren ondoren adierazpenik ez egitea. Barruan zeraman mina gehiegitxo izan zen oraingoan kamera aurrean agertzeko, Bengoetxearen nagusitasuna onartzeko. Badira bereziki mingarriak gertatzen diren porrotak, Abelentzat ere bai.

**"Barruan zeraman mina gehiegitxo izan zen oraingoan Barriolarentzat"**

Realzaleontzat ere egun tristea izan zen atzokoa. Txuri-urdinek eskura izan zuten igoera joan den astean, baina Lilloren taldeak huts egin zuen Gasteizen. Atzo mirari behar zuen. Min ematen badu ere, onartu beharko dugu Numancia, Sporting eta Malaga hobeak izan direla. Ea hurrengo urtean, umiltasunez, lehen mailara itzultzen garen.

**> Mundumira.** **Ez nuen Mundumiraz jaialdiaz gozatzeko aukerarik izan, baina guztiek goraipatu dute Bergaran egondako giroa. Hango formula on batzuk jaietara aplikatzea ez legoke gaizki agian...**

**> Eurokopa.** **Mundumirarekin ez, baina Eurokopako giroaz disfrutatu nuen aurreko astean, Suitzan. Futbola festa bihurtzen denean handia da... Gainera, partidu ederrak ikusten ari gara. Festak jarrai dezala.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Xabier Altzelai** > Oñati

# "Kirola maite duenarentzat herrialde ezin aproposagoa da Suitza"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Xabier Altzelai (Oñati, 1983) Suitzako Wetzikon herrian bizi da, Zuricheko hiritik gertu. Bere egungo egoeraz ezin da kexatu, izan ere, automobilgintza bizitzako zaletasuna du, eta, era berean, *BMW Sauber F1* taldeko ingeniaria da. Mundu honetaz aparte, futbola eta bidaiatzea ditu gustuko.**

**Urtarrilean joan zinen Suitzara. Zer galdu zitzaizun ba han?**
BMW enpresaren 1 Formula taldean sartzeko aukera agertu zitzaidalako nago hemen. Aukera paregabea zen nire ingenieritza ikasketak eta zaletasun nagusia aldi berean uztartzeko. Bestalde, Suitza herrialde erakargarria iruditzen zitzaidan, eta gainera, bertan bizi den lagun batek ondo hitz egin izan dit beti Suitzari buruz.

**Non bizi zara hobeto, Oñatin ala Wetzikon?**
Zaila da erantzuten. Bietan daude alde onak eta alde txarrak. Oro har, Suitzan bizimodu maila altua dago. Naturarekin harremanean izateko aukera ematen du, Euskal Herria gogorarazten dit askotan.

Kirola maite duen pertsona batentzat Suitza ezin aproposagoa da. Alde horretatik denetariko eskaintza dauka.

**Nola jartzen zara harremanetan hemengo zure jendearekin?**
Aspalditik nabil blog bat egiteko gogoz, baina beti aurkitzen dut aitzakiaren bat ez egiteko. Egia esan, ahal dudan gehien egoten naiz lagunekin eta familiarekin. Normalean Skype bidez [Internet bidezko telefonoa] egoten gara eta elkar ikusten gara. Baina, finean, e-posta da gehien erabiltzen dudana, bai familiarekin eta baita lagunekin ere. Koadrillako gorabeherak, herriko futbol txapelketako kontuak, hau guztia bidaltzen didate lagunek, buletina bezala.



XABIER ALTZELAI

**1 Formulan ingeniari**
Xabier Altzelai bere auto zaletasunetik bizi dela esan daiteke, BMW enpresan 1 Formulako ingenieria baita.

**Zer botatzen duzu faltan Oñatitik?**
Oñatitik gauza asko bota daitezke faltan. Baina, gehien, amak domeketan gertatzen duen bazkaria da, zalantza barik.

Bestalde, lagunekin futbolean jokatzea, mendira irteera bat egitea eta Usakon bainu bat hartzea ere faltan botatzen ditudan gauzak dira. Horregatik, hain zuzen, etxera bueltatzen naizen bakoitzean hiru gauza hauek egiten saiatzen naiz.

**Nolakoak dira suitzarrak? Zein ezberdintasun dauzkate gurekiko?**
Gurekin konparatuz nahiko ezberdinak dira. Guri bezala, natura eta mendia gustatzen zaie eta orokorrean kirolzaleak dira.

Oso langileak dira, oso finak. Bulegoan bi lankide suitzar ditut eta goizero 7:00etan daude bulegoan lanerako gertu. Euren artean adeitsuak dira oso, baina kanpotarrekin, ordea, itxiagoak dira.

**Zein alde on ditu Suitzak? Eta alde txarrak?**
Alde on moduan Suitzako kultura eta hizkuntza aniztasuna aipatuko nituzke.

Alde txarra, bestalde, baten bat aipatzekotan, oraindik franku suitzarra erabiltzen dutela txanpon bezala.

**kale inkesta**

# Udal azokara joateko eta hango produktuak erosteko ohitura duzu?



**Mari Karmen Askasibar**
Langilea
Arrasate

Bai, txikitatik. Denetarik erosten dut han: barazkiak, fruta, hestebeteak eta noizean behin, produktu izoztuak. Erdialdean bizi naiz eta niretako oso ondo dago. Hori bai, azoka konpondu beharra dagoela uste dut.



**Maria Dolores Jauregi**
Langilea
Arrasate

Bai, astero. Inguruko baserritarrei barazkiak, fruta eta ogia erosten dizkiet. Bakailaoa ere han erosten dut, oso bakailao ona ekartzen dute. Azoka, baina, oso egoera kaskarrean dago. Hori ondo ipinita, ederto.



**Patricia Bazaes**
Langilea
Arrasate

Bai. Gertatzen dena da gero eta postu gutxiago daudela, saltzaileei zerga altuak jartzen dizkietelako. Eskaintza ez da oso zabala. Instalazioak ondo badaude ere, irisgarritasuna eman beharko diotela uste dut.



**Jose Mari Balanzategi**
Langilea
Arrasate

Bai. Normalean, arrautzak, gazta, letxugak eta olibak erosten ditut. Eskaintza zabala dago. Okela eta arraina ez dut han erosten. Instalazioak zahartuta daude, ez dute erakartzen. Joaten zara generoa ona delako.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Elkartasun egun bi egun berean**
Irakurle bat ez dago ados Arrasaten, egun berean elkartasun egun bi izatearekin; Portaloira elkarteak eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek zapatuan egindakoak, hain zuzen. Egun batean ekimen larregi pilatzen direla eta herriari bizitasun gehiago ematekoko, aste bukaera ezberdinetan banatzea proposatu du.

ARRASATE
**> Uribarri kaleko errepidearen egoera dela eta**
Herritar batek deitu du Arrasateko Uribarri kaleko errepidea oso egoera txarrean dagoela salatzeko. Kalean zulo handiak daudela dio. Ahalik eta azkarren konpon dezatela eskatu du.

## ZUZENKETA

Joan zen Asteleheneko Goienkaria-n, "Kale inkesta" atalean, 8 orrian, galderari erantzun zuen herrietako baten, Joxe Arrietaren, ahotan zera jarri genuen: "Aurrerago joango gara hondartzara. Etxea dugu Oriñonen". Bada, hori ez da zuzena. Joxe Arrietak erantzun zuena hauxe da: "Aurrerago joango gara hondartzara. Oriñongo kanpinera joaten gara".

**usteak uste**

**Mirian Biteri**

# Zein da erantzulea?

Garraiolarien grebak eragindako arazoekin harrituta nago oraindik ere. Argi geratu da garraiolariek egiten duten lana ezinbestekoa dela gizarte osoarentzat: kamioien gelditzeak gizartearen gelditzea dakar eta. Gasolindegien itxiera, supermerkatuen apaletan produkturik ez izatea bailarako hainbat enpresek euren ekoizpena gelditu behar izatea ekarri du horrek.

Baina, normala da egun gutxi batzuetan horrelako egoerara iristea? Ze punturaino gara erantzule gutzi horretan kontsumitzaileak? Eta komunikabideak? Grebak batzuen histeria eragin du. Edo guztien histeria esan beharra dago? Gehienak lasai agertzen gara besteen aurrean, betikoa erosi dugula esatean. Errealitateak, baina, kontrakoa dio.

**zorroztailea**



**Juan Luis Azkarate**

# Shock-aren ekonomia

"Ezkerrak badu esperantza kapitalismoaren krisiak sistema bera itoko duela. Baina hau guztia hori baino arriskutsuagoa da. Merkatua hondamendi eta shock egoeretara egokitu da; ulertu egin ditu egoera horiek, eta haiei esker aberasten ari da".

**Naomi Klein**
Berria > 2008-06-13


«Mugetako kontrolaren negozioa nahi dute gatazkekin aberastu direnek»

Gero eta okerrago, hobe. Horrela dio teoria zahar batek, oso testuinguru ezberdinetan erabilia izan dena. Muturreko liberalismo ekonomikoak badirudi asko ikasi duela honetaz. Hala dio Naomi Klein kazetari kanadarrak bere azken liburuan, *The Shock Doctrine: The rise of Disaster Capitalism*. Pertsonengan torturak duen eragina, herrialdetan shockaren ekonomiak sortzen duen efektua alderatzen du: zeharo izutu eta beldurtuta gelditzen dira shock-aren ekonomikoaren taktika pairatzen dituen herrialde horiek eta, orduan, putreak legez, atzera datoz beste batzuk nahaste borrastea aprobetxatu eta dirua irabaztera. Gerrari esker beti izan dira aberastu direnak, eta horrelako zerbait gertatzen bide da munduan dagoen egungo egoera nahasiarekin: migrazio handiak, planetaren berotzea, hondamendi naturalak…deskalabru guzti hauen atzetik pribatizazioak datoz, segurtasunaren negozioarekin gertatzen ari den bezalaxe, eta munduaren aberastasun guztia enpresa gutxi batzuen esku gelditzen da. Globalizazioa, alegia.

Panorama apokaliptikoa benetan kazetari honek deskribatzen diguna, baina ez dago hain urruti azken aste hauetan hemen ere ikusten ari garenaz: euriborra, inflazioa, petrolioaren eta janariaren etengabeko igoerak… eta, hau guztiau gutxi balitz, kamioilarien grebak jarri digu falta zen psikosi puntua, pastelaren ginda.

"Aberastasun guztia enpresa gutxi batzuen esku gelditzen da. Globalizazioa, alegia"

"Kamiolarien grebak jarri digu falta zen psikosi puntua, pastelaren ginda"

Ez dakit zenbat kamioilari egongo diren Espainian, baina ikustekoa gremio honek duen indarra herrialde oso bat hankaz gora jartzeko, tonen kontua izango bide da.

Greba honen harira, lehengunean, –eta National Geographic aldikariaren harpidedun izateak ematen duen autosufientziarekin– zera bota nuen lagun arteko bilera batean: petrolioa betirako amaitzen ari dela, eta energia iturri honi benetako ordezko bat bilatzeko borondate politikorik ez dagoelako gabiltzala horrela, krisiak itota. Entzuleak aho zabalik gelditukо zirelakoan nengoen, baina ez. " Benetan uste duzu petrolioa amaitzen ari dela?" erantzun zidan solaskide batek, serio. Hitzik gabe geldituntzen. Horra hor, shock-aren ekonomiaren taktika.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Mirian Biteri, Txomin Madina, Xabier Urtzelai **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Etxe Txiki kaleko lanek bi hilabetetik gora iraungo dute **> 10**



**> BERGARA**
ONA txartela eskatu dezakete dagoeneko herritarrek **> 11**



**> OÑATI**
Arrikrutzen urteurrenean bisita bereziak egingo dituzte **> 12**

**ARRASATE** > ELKARTASUN EGUNA

# Harremanek zapatuan lortutako 4.000 euro inguru bideratuko ditu Indiara

**BALORAZIO ONA**
Antolatzaileak gustura daude Elkartasun Egunak izandako parte hartzearekin

**IRABAZLEAK**
Tonbolako zenbaki saridunak 1.368 eta 1.239 izan dira aurten

**UMEZURTZ ETXERA**
Lortutako dirua Indian dagoen umezurtz etxe batera zuzenduko dute



**ZARAMASANBA TALDEA** Jende asko bildu zen zapatu eguerdian Seber Altuben, Zaramasamba perkusio taldearen emanaldia ikusteko. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Gobernuz kanpoko erakundeak oso pozik daude zapatuan Arrasaten egindako Elkartasun Egunak izandako harrerarekin. Harremaneko kide Cristina Etxenagusiak jakinarazi du aurten 4.000 euro inguru lortu direla. Jakina denez, diru hori Indiako Mumbai hiriko kanpoaldean dagoen Ankur umezurtz etxera bidaliko dute.

Seber Altube plazatik pasa zirenek, mota askotariko erakundeen lanaren gaineko informazioa jaso zuten, hala nola, Arrats, Nagusilan, Sos Arrazakeria eta Zero Pobrezia. Sahararren alde lan egiten duen Nubi elkartea ere han izan zen, karpa batekin. Hango ohiturak ezagutaraztera eman zituzten horretan, te-katilua esku hartzean izanda.

Ondoan, Harreman taldekoak zeuden, tonbolarako txartelak euro baten truke saltzen. Txartel guztia –4.000 zenbaki– saldu zituzten. Guztira, 139 opari zeuden banatzeke. Batzuk loreekin itzuli ziren etxera; beste batzuk, berriz, koloniekin edo jostailuekin.

**ZENBAKI SARIDUNAK**

Urtero bezala, saririk ez zuten txartelen artean zozketa egin zuten arratsaldean. 1.368 zenbakidunak hiru eguneko bidaia irabazi du Asturias edo Kantabriako landetxe batera; erreserba zenbakia, 3.483 da. Gainera, 1.239 zenbakia duenak bizikleta bat irabazi du; hori agertu ezean, 680 zenbakia duenak jasoko du oparia. Etxenagusiak, horren harira, eskerrak eman nahi izan dizkio Ibai-Arteko merkatariei, Eroski Bidaiakeri eta Ume dendakoei, produktu guzti horiek eskaintzeagatik.

Tonbolako txartelak saltzen ari ziren ondoko postuan, bidezko merkataritzako denda zegoen jarrita; eta handik metro gutxi batzuetara, Elkarhezitzen taldekoak jendea erakartzen saiatzen ziren, euro solidarioaren jolasean parte har dezan.

Aldarrikapenaz gain, dibertsiorako astia ere izan zen Seber Altuben. Eguerdi partean, Zaramasamba perkusio taldekoek inguruneak alaitu zituzten. Arrasatear asko ibili ziren horien atzetik, gorputza astintzeko asmoz. Eguraldiak, gainera, horretan lagundu zuen. Arratsaldean, berriz, umeek izan zuten protagonismo osoa. Txatxilipurdikoek jolasak prestatu zituzten etxeko txikiendako. Etiopian kafeareekin gertatzen ari dena jorratzen duen *Urre Beltza* izeneko dokumentalarekin eman zioten amaiera egunari.

**AITA PONTEKOAK EGITEKO DEIA**

Harremanek, aurten, Indian besoetako haurrak hartzeko proiektua abian jarri du, Ankur umezurtz etxearekin duen lankidetza bultzatzeko. Hala, zapatuan proiektu horren gaineko informazioa banatu zuen Seber Altuben. "Parte hartzera animatu nahi zaituztegu, laguntzen jarraitu ahal izan dezagun, Uttan eta Gorai herri arrantzaleetako abandonaturiko eta familia txiroetako neskatilei bizi ahal izateko laguntza eta prestakuntza emanez, bizimodu duina izan dezaten", jakinarazi zien Etxenagusiak horren gaineko informazioa eskatzera joan ziren guztiei.

**OBRAK** > ITXITA ERTZAINTZAREN ONDOKO KALEA

# Hasiberri diren Etxe Txiki kaleko obrek luzerako iraungo dute



Etxe Txiki kalea trafiko norabide jakinik gabeko kalea izan da beti J.A.

Zabalgunea eremuko urbanizazio planaren barruan aurreikusten ziren lanak dira

Oraingoz autoak kale bereko ezkerreko aldetik sartuko dira Gipuzkoa Etorbidera

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Orain hamar bat egun hasi ziren Etxe Txiki kaleko lanak. Kalearen izena arrotza egingo zaio bat baino gehiagori: lehen Maala kalearen barruan kokatzen zen. Hau da, Gipuzkoa Etorbidetik herriaren kanpoaldera goazela, eskumatara dagoen kale txikia, Ertzaintzaren egoitzaren ondokoa. Kalearen zati bat hartu dute lanek; ez da kale osoa itxiko.

**SANEAMENDU LANETAN**
Udaleko Hirigintza Sailetik jakinarazi dutenez, obra hauek Zabalgunea deritzon eremuko urbanizazio planaren barruan aurreikusita zeuden. Egun azpiegitura lanetan dihardute, besteak beste, saneamendu eta elektrizitate hornidurak muntatzen. Horrek esan nahi du lehenik errepidea jaso, ondoren egin behar diren lanak egin eta azkenik guztia ondo asfaltatuta eta erabilgarri utzi behar dela. Hau jakinda, Udaletik ezin izan dute hasiberri diren obra hauek noiz amaituko diren zehaztu. Hori bai, luzerako eman dezakeela (2-3 hilabete) ohartarazi dute. Etxe Txiki kaleko obra hauen aurrekontua ere ezin izan dute jakinarazi, izan ere, Zabalgunearen urbanizazio plan osoaren barruan sartzen da.

Obren arduraduna Xaxarki enpresa da. Sustatzailea, era berean, Obenerreka da, Zabalgunea eremuaren arduradun berbera.

**TRAFIKOAN ALDAKETA**
Obrek dirauten bitartean, Nafarroa Etorbidetik Gipuzkoa Etorbidera sartu nahi duen autoak obren aurretik ezkerretara sartuz, Maalako biribilgunetik egin beharko du. Obrak amaitzen direnean, ezingo da Etxe Txiki kalea

## Obrak amaitu ostean norabidez aldatuko du Etxe Txiki kaleak

Etxe Txiki kaleak –Maala kalea ere zenean– hainbat alditan jasan ditu trafiko norabidean aldaketak: Gipuzkoa Etorbidetik sartzeko batzuetan, eta bertatik irteteko besteetan. Obrak amaitzean, planoan gezi gorriak adierazten duenez, Gipuzkoa Etorbidetik irteteko norabidea emango diote trafikoari. Behin betiko izan dadila.




**MERKATARITZA** > IBAI-ARTE MERKATARIEN ELKARTEA

# Fidelizazio kanpaina egitera behartuta

Bazkideen aurrean aurkeztuko du gaur Ibai-Arte Elkarteak euren bezeroak fidelizatzeko kanpaina

Merkatal zentro erraldoien hedapenak sortzen dizkien eragozpenez kexu dira; eta etorkizuneko proiektuek are egoera ilunagoa promesten dute



Egungo merkataritzak denda txikiak kaltetzen ditu J.A.

**J.B.** > ARRASATE
Aspaldi zabaldu zen kezka herriko merkatari txikien artean. Ibai-Arte Merkatari Elkartearen *Kaleak Bizirik* kanpaina, esaterako, entzutetsua egin zen eta hainbat merkatari mobilizatzea lortu zuen. Hala ere, merkatari txikiek etorkizuna ilun ikusten dute. Merkatal zentru erraldoiak gero eta azkarrago ari dira hedatzen, eta aurreikusten diren proiektuek –AP1 autobidearen irekiera edo Eibarren *El Corte Ingles* bat zabaltzea, kasu– ez dute esperantzarako tarte larregi uzten.

Oraingoan euren bezeroak fidelizazitzeko kanpaina batekin datoz Ibai-Artekoak. Gaur izango da aurkezpena, Kulturateko auditorioan, 15:00etan.

**BAZKIDEEN INTERESAK BABESTEA**
Ibai-Arteren helburu nagusia bazkideen interesak defendatzea da. Egungo merkataritzaren egoerak sortzen dizkien mehatxuei aurre egiteko xedez, elkartea lehiakorragoa egingo duen tresnak bilatu nahi dituzte eta gogor aritu dira lanean hau nola gauzatu pentsatzen. Bezero berriei aterik itxi gabe, dagoeneko bezeroak direnak fidelizatzeko asmoa dute.

**IBAI-ARTEREN "TRAVEL"-A**
Bezeroak fidelizatzeko, eta besteak beste, bezeroei zuzendutako txartel bat ateratzeko asmoa dute. Txartel honen bitartez, bezeroei opari, promozio, beherapen eta beste hainbat abantailaz gozatzeko aukera emango zaie.

> ERAKUSKETA

### Ekin elkartekoek egindako eskulan eta orratz lanak ikusgai

Egubakoitz honetan zabaldu ko du Ekin emakumeak elkarteak *Eskulan eta orratz-lanen erakusketa*. Obrak ikusteaz gain, eskulan eta orratz ikastaroak egin ahal izango dira.

Ez da berria herriko emakume taldeek -bai erdigunekoek zein Musakolakoek- egindako lanekin aurkeztuko duten erakusketa hau. Ekainaren 13an izango da irekiera ekitaldia, eta 20ra arte egongo da zabalik. Erakusketa Harresi aretoan izango da.

Ikastaroei dagokienez, bestalde, astelehenetik egubakoitzera arratsaldez bakarrik emango dira, 18:00etatik 20:30etara. Asteburuan, 12:00etatik 14:00etara goizez, eta 18:00etatik 20:30etara arratsaldez. Ikastaroak ere Harresi Aretoan izango dira eta Ekin emakume elkartetik parte hartzeko deia egin dute.


KZguneaz gain, liburutegian ere egin daiteke ONA txartela lortzeko eskaera. OXEL ARRIETA

**ZERBITZUAK** > ASTE HONETATIK AURRERA LORTZEKO AUKERA DAGO ONA TXARTELA

# ONA txartela eskuragarri dago eta hainbat erabilgarritasun ditu

Txartela liburutegitik eta Kzgunetik bideratuko da. Egun erabiltzen dugun osasun txartel indibidualaren ordezkoa izango da.

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Duela bi hilabete inguru Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñatin jarri zuten martxan ONA txartela. Aste honetatik aurrera Bergaran ere lortu daiteke.

**AUKERA EZBERDINAK**

Herriko KZgunean edo liburutegian bideratuko dituzte ONA txartela lortzeko eskaerak. Txartel honen bidez, administrazioak eskaintzen dituen zerbitzu telematiko guztiak bateratuta geratuko dira, eta txartel bakarrarekin, hainbat tramite egin ahalko dira. Hala, osasunari dagozkionak, medikuarekin hitzordua *online* adostu ahalko da, mediku aldaketa eskatu, asistentzia-espedienteak edo bajen datuak. Badira orokorragoak diren beste batzuk, adibidez: kontratazio-baldintzen orriak, enpresen erregistroa eta sailkapena, kolektiboendako zerbitzuak (elektrizitate-instalatzaileak, jokoa eta ikuskizunak). Baina beste hainbat kudeaketa egiteko aukera ere emango du, besteak beste lan bizitzaren agiria eskuratu, gidabaimenean zenbat puntu ditugun ikusi eta errenta aitorpena egin, baita kiroldegietan sartzea, udal-liburutegietan katalogoak kontsultatzea eta liburuak mailegatzea ere.

**HAMASEI URTETIK GORAKOENTZAT**

Txartela eskuratzeko, nahikoa da 16 urtetik gora izatea eta Osakidetzako txartela eta Nortasun Agiria eramatea. Txartel honek hainbat elementu ditu bere baitan. Hala, Osakidetzako txarteleko datuak ditu, baita Gizarte Segurantzakoak ere. Honetaz gain, Izenpe erakundeak onartutako sinadura elektronikoa, banda magnetikoak, ontzien jokoa, gertutasun antena eta barra kodea. Txartela ordenagailura zuzenean konektatzeko irakurgailu berezi bat behar da, eta KZgune guztietan egongo da irakurgailu hori.

**BOST URTE BARRU, ONA BAKARRIK**

ONAk orain arteko Osakidetzako txartela ordezkatuko du bost urte barru eta beraz, beharrezkoa izango da berau lortzea. Txartela jasotzean, erabiltzaileei txartelaz gain, azalpen orriak, kontratua eta cd bat banatuko zaie, norbaitek etxean programa ipini nahi badu.

**TXANGOAK** > GAZTEENDAKO UDAKO IRTEERAK

# Ur ekintzak uda honetan gazteendako

**J.Z.** > BERGARA

Uda gertu dugula - eta Udalak gazteendako udako irteerak antolatu ditu. Guztira hiru irteera izango dira: Ebro ibaitik rafting-a egitera, Arcachoneko aquaparkera eta Urdaibaitik kanoa zeharkaldia; lehen biak uztailean izango dira bestea abuztuan.

**EBRO, ARCACHON ETA URDAIBAI**

Lehen txangoa, uztailaren 9an izango da, 13 eta 18 urte bitarteko gazteendako Ebro ibaian rafting egiteko. Rafting jaitsiera hori Pesquera de Ebro eta Tudanca (Burgos) artean izango da. Bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Lehen bidaia horretan 50 lagunendako dago tokia, eta kopuru hori baino gehiagok izena ematen badute zozketa bidez aukeratuko dira lehen bidaia horretara joango direnak. Izena emateako azken eguna, ekainaren 25a izango da. Informazio gehiago nahi duenak eta izena emateko Kultura Etxera deitu baino ez du: 943 777 91 60.



Ur ekintza ugari izango dira gazteendako uda honetan. GOIENKARIA

> ZIRKULAZIOA

### Bidekurutzeta kalea itxita egongo da autoendako, astebete

Etxe bateko teilatuan egiten ari diren lanak direla eta, Bidekurutzeta kalea autoendako itxita egongo da gutxienez astebete. Horrela, San Martin plazatik gora doazen autoek derrigor egin beharko dute Komenio kaletik gora. Oinezkoak bertatik pasatzeko ez dago arazorik.

Irala kaleko lanek, berriz, aurrera jarraitzen dute. Horregatik, bi astetan zehar Irizar kaletik San Martin plazarako bidea itxita egon da autoendako. Dagoeneko zabaldu dute eta orain autoek ez dute aukera bakarra pasatzeko –Kruz Gallastegi–, joan den asteaz geroztik Barrenkaletik zehar plazara aldera ere pasa daitezke.

> EUSKAL ASTEA

### San Martin ikastetxeak Euskal Astea ospatuko du

San Martin ikastetxeko ikasleek aste honetan Euskal Astea ospatzen dute, "euskararen erabilera areagotzeko, eta ikasleak, euskal kultura ezagutuz gure herriko eragile zuzenak izatera bultzatzeko" ikastetxeko arduradunek adierazi dutenaren arabera.

Aste guztian zehar egongo dira ekitaldiak adin guztiko neska mutikoendako. Gaur emango zaio hasiera txupinazoarekin eta pregoi irakurketarekin, Euskal aste horri. Ondoren, horma-irudiak egingo dituzte. Martitzenean, euskal dantzak egongo dira; eguaztenean, pilota txapelketako finalak; eguenean, jolas tradizionalak egingo dituzte eta egubakoitzean, musikaren eguna ospatuko dute.

> UDALA

### Diru laguntzetarako eskaera orriak eskuragarri daude

Udaleko Euskara Batzordeak euskalduntze-alfabetatzea bultzatzeko eta euskarazko ikasketak bultzatzeko diru laguntzak eman nahi ditu.

Alde batetik, Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo (Udal Euskaltegian dabiltzanak bertan izaten dituzte dirulaguntzak) euskara ikasten dutenentzako dirulaguntzak, hau da, barnetegietan edota kanpo-ikastaroetan ikasten dutenentzako. Eta baita, Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) parte hartzen dutenentzako dirulaguntzak ematen dira. Dirulaguntza hauek lortzeko eskaera orria bete behar da. Eskaera orri hori udaletxean eskatu daiteke.

**TURISMOA** > KOBAK

# Arrikrutzen urteurrenean bisita bereziak egingo dituzte

## Bihartik hasi eta domekara arte egingo dituzte bisitak, oñatiarrendako bakarrik

## Bisita berezietan parte hartzeko, aldez aurretik 943 08 20 00 telefonora deitu behar da



Bisita bereziak egingo dituzte Arrikrutzera. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

2007ko ekainaren 8an zabaldu zituen ateak Arrikrutzeko kobak. Ordutik, 25.000 bisitari egon dira han. Lehenengo urteurrenaren harira, Garapen eta Turismo Agentziak bisita bereziak antolatu ditu oñatiarrendako. Hain zuzen, bihar hasi eta domekara arte egingo dituzte. "Oñatiarrei aukera berezia eman nahi diegu kobak ikusteko. Horregatik, sarrera txartelak merkatu eta hiru eurotan salduko ditugu. Gainera, 4 urte arteko neska-mutikoak doan sartu ahal izango dira", esan digute Arrikrutzeko informazio puntuan.

Dena den, bisita berezietan parte hartu gura dutenek, ezinbestekoa dute erreserba egitea 943 08 20 00 telefonora deituta. Gogoratu, bisitak, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara izango direla. Horren harira, azkeneko bisitak 13:00etan eta 18:00etan egingo dituzte.

**BISITARI ASKO**

Balorazio orokorra egiteko denbora gutxi igaro arren, lehen urteurrenean pozik agertu dira Arrikrutzeko arduradunak. 25.000 bisitarik ikusi dute barrutik koba: horietatik, 976 oñatiarrak dira eta 2.000 ibarrekoak. Gainerako bisitarien artean ugarienak gipuzkoarrak, madrildarrak eta kataluniarrak izan dira, hurrenez hurren.

Arrikrutzen egon diren bisitariek, beraien iritzia eman ahal izateko inkesta orriak bete dituzte. Horren harira, hainbat ondorio atera dituzte, besteak beste, familia ugariendako deskontuak egon beharko liratekeela, bisita luzeagoa izan beharko litzatekeela, edo sarrera, kreditu txartelarekin ordaintzeko aukera egon beharko litzatekeela. Gutzi horiek hartuko dituzte kontutan zerbitzua hobetzeko, eta laster jarriko dute kreditu txartelarekin ordaintzeko makina.

**INFORMAZIOA ZABALDU**

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak Gipuzkoan zabaldu du Arrikutzen gaineko informazioa. "Bisitarien %27ak egunkarien bidez jaso du Arrikrutzen gaineko informazioa, eta %22ak, Oñatiko zein beste herrietako turismo bulegoetatik". Horregatik guztiagatik, etorkizunari begira, Frantzian eta Bizkaian zabaldu gura dute kobazuloaren gaineko informazioa.

**'MUGARIK GABEKO LURPEA'**

Arrikrutz kobak, Euskal Herriko beste bost kobekin, Mugarik Gabeko Lurpea izeneko proiektua osatu dute. Hain zuzen, Urdazubi-Urdaxeko (Nafarroa) Ikaburuk, Asitzeko (Nafarroa) Mendukilo, Karrantzako (Bizkaia) Pozalagua, Sarako (Lapurdi) eta Zugarramurdiko (Nafarroa) Sorginen Lezea. Koba guztiak bisitatzen duten turistei, sei kobetako irudiak dituen CDa oparituko diete.

**KIROLA**

## Kirol eskaintza berezia uztailerako

### Helduendako izenemate epea ekainaren 20an bukatuko da

**M.B.** > OÑATI

Uztailerako kirol eskaintza berezia prestatu dute Zubikoa kiroldegian, besteak beste, pilates terapeutikoa, erditze osteko gimnasia, body jam, batuka, hirugarren adinekoendako gimnasia, body balance, fit bike, eta pilates hastapena. Hain zuzen, ikasturtean zehar eman dituzten eskaintzak dira, baina talde berriak osatuko dituzte.

Egubakoitzera arte eman daiteke izena uztaileko taldeetan parte hartzeko, eta oraingoz, lagun askok eman dute izena. Kiroldegiko bulegora joan behar da izena ematera. Eskolak ekainaren 30ean uztailaren 30era bitartean izango dira.

Bestalde, hainbat master class eman behar dituzte ekainean zehar: alde batetik, fit bike egiterakoan pultsometroa erabiltzen ikasteko eskolak emango dituzte ekainaren 24an 20:15ean, eta ekainaren 26an 18:15ean; beste alde batetik, pilota handiekin tonifikazioa lantzeko eskola emango dute egubakoitzean, 18:30ean; eta, azkenik, Quebrantahuesos lasterketa prestatzen dabiltzanendako, lau irakaslerekin prestaketa saioa egingo dute eguenean, 19:15etik 21:15era. Eskola berezien inguruko informazioa jasotzeko eta izena emateko, kiroldegiko bulegora joan daiteke.

**UDAKO KIROL KANPAINA**

Ekainaren 30ean hasiko den kirol kanpainako izenematea egubakoitzera arte luzatuko da. Egubakoitzean egin zuten zozketa, eta kiroldegiko sarreran ikusgai dagoen zerrendan zehazten da haur bakoitzak ze egun eta ordutan eman behar duen izena. Matrikulazio orria ondo beteta eroatea aholkatzen dute kiroldegitik.

**ORDUTEGI BERRIA**

Domekan jarriko dute indarrean udako ordutegia kiroldegian. Hala, uztailaren 31ra arte, astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 21:30era egongo da zabalik, eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 20:00etara. Abuztuan aldiz, astelehenetan itxita egongo da, eta gainerako egunetan, 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute.

**KULTURA** > EKUADORREKO ARGAZKIAK

## 'Juxe'-ren argazki erakusketa gaztelekuan



Erakusketa gaztelekuko kuboan dago ikusgai. JOSETXO ARANZABAL

**M.B.** > OÑATI

Jose Angel Areta Goñi *Juxe* argazkilariaren erakusketa ikusgai dago gaztelekuko kuboan. Hain zuzen, zapatuan zabaldu zuten, eta domekara arte, hilaren 22ra arte egongo da ikusgai, bakarrik arratsaldez, 18:30etik 20:00etara, eta sarrera, plazako aparkaleku aldetik egongo da.

*Entzun!* aldizkariko argazkilariak bi hilabeteko bidaia egin zuen Ekuadorrera, eta han hainbat argazki egin zituen. Horietako batzuk, 60 hain justu ere jarri ditu gaztelekuan, besteak beste, Ekuadorren dauden 13 nazionalitate indigenen eta Andeetan egindako argazkiak zintzilikatu ditu Oñatin. Hango bizilagunei egindako erretratuak, eta naturari buruzko argazkiak ere ikus daitezke. Amazonasetik hasi eta Pazifikoraino bizi direnek duten bizitza bildu du erakusketan.

**ZURI-BELTZEAN**

Areta Goñi errenteriarrak, argazki guztiak zuri-beltzean egiten ditu, eta beti, kamera analogikoa erabiltzen du. Gainera, bera arduratzen da prozesu guztia egiteaz: argazkia egiten duenetik erakusketan jartzen duen arte. Bestalde, musikari buruzko hainbat erakusketa egin ditu.

> LANA

### Arkitekto teniko lanpostuko lehen froga uztailaren 10ean

Udalak hutsik duen Arkitekto Tekniko lanpostua betetzeko egin beharreko lehen azterketan eguna zehaztu du dagoeneko. Hain zuzen, test erako lehen froga uztailaren 10ean egingo dute, kultura etxean.

Azterketa eguna Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zen ekainaren 12an. Era berean, azterketa egiteko onartutako behin betiko izenak ere publikatu dira. Guztira, 11 hautagai onartu dira: Lorea Arrien, Xabier Berridi, Olatz Bideluze, Jon Eskisabel,Imanol Etxeberria, Josune Garai, Ane Lopez de Uralde, Asier Manuel, Leire Troitiño, Saioa Zelaia eta Onintza Zubizarreta; eta bakarra baztertu dute. Orain, erreklamazioak aurkezteko epea zabalik dago, hain justu ere, ekainaren 22ra arte.

Jessica Amozarrain > Hezitzailea

# "Udaero aproposa da Eskoriatza eta Aretxabaletako gazteen arteko harremana sendotzeko"



Irudian, Jessica Amozarrain, Aretxabaletako gaztelekuan. MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

**Gazteek ez dute uztailean aspertzeko astirik izango, Udaeroko ekintzetaz gozatu ahal izango dute eta aurten ere. Horren hezitzaile Jessica Amozarrainekin izan gara.**

**Zer da Udaero egitasmoa?**

Eskoriatzako eta Aretxabaletako hamabi eta hamasei urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoen egitasmoa da. Uztailean ekimen bereziak eskaintzen zaizkie martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan: Surf ikastaroa, *paint ball*, Gamarra eta Landara irteerak, herri olinpiadak, Akelarre gaua dute. Amaitzeko Urdaibaira joango gara hiru egun.

**"Hamabi eta hamasei urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoen egitasmoa da"**

**"Gazteek *paint ball*-a dute ekimen gustukoena. Aurreko urtean arrakasta izan zuen"**

**Zenbagarren aldia da hor hezitzaile moduan ibiltzen zarela?**

Joan zen urtetik nago; Txatxilipurdik horren ardura hartu zuenetik. Oso esperientzia polita izan zen niretako eta horregatik, aurten errepikatzea erabaki dut eta hurrengo urtean ere, egotea gura dut.

**Zenbat gaztek parte hartzen dute guztira?**

Joan zen urtean gazte askok eman zuten izena. Eskoriatzarrekin eta aretxabaletarrekin batera egiten dugu. Urtean zehar ere ekintzak egiten dituzte batera. Bi herriko gazteen arteko harremana sendotzeko aproposa da horrelako egitasmoa aurrera ateratzea.

Aurten, oraindik, ez da inor apuntatu baina, denbora dago. Espero dugu klaseak amaitzen direnean izena emango dutela. Ekainaren 25era arte dago epea.

**Hondartzara, urtegira eta igerilekuetara joateko asmoa duzue. Momentuz, eguraldiak ez du batere lagundu. Euria eginez gero, zer?**

Berdin irteten gara. Joan zen urtean, eguraldi txarra egin zuen eta Zarautzera berdin joan ginen surf ikastaroa egitera. Gamarrara joan ginenean ere lainotuta zegoen eta han izan ginen. Espero dugu aurtengo eguraldia hobea izatea.

**Zein da zure lana?**

Ekintzak gazteekin batera pentsatu eta Txatxilipurdikoekin, horien antolaketan parte hartu. Uztailean, ekintzak garatzen direnean, gazteekin joaten gara.

**Gazteek zein ekimen dute gustukoen?**

*Paint ball*-a, zalantza barik. Aurreko urtean arrakasta izan zuen eta beraz, aurten berriro egitea erabaki dugu.

**ESKORIATZA** > LANA

# Hitzarmen "duina" lortzeko lanuzteak TESAn

Langileek errelebu bakoitzeko ordu eta erdiko geldialdiak eta elkarretaratzeak egingo dituzte

M.B. > ESKORIATZA

Joan den astean egin zen batzarrean TESAko langileek mobilizazioak deitzea erabaki zuten, enpresa hitzarmenean egin zaien eskaintza "eskasa" dela uste dutelako.

Ekainaren 11n, eguaztena, lanuzteekin hastekoak ziren baina azkenean, horiek atzeratu dituzte. Asteotan hasiko direla jakinarazi du Enpresa Batzordeak. Hala ere, datak oraindik zehazteke daude. Langileek errelebu bakoitzeko ordu eta erdiko geldialdiak egitea aurreikusi dute. Lanuzteekin batera, elkarretaratzeak egin nahi dituzte enpresa aurrean.

**ALDARRIKAPENA**

Enpresa Batzordearen iritziz, "azken eskaintza zeharo eskasa da, enpresak KPIa soilik bermatzen digu hiru urteetarako, eta gainontzeko puntuetan ere ez du inolako hobekuntzarik eskaintzen".



**TESA** Irudian, Eskoriatzako TESA enpresa. IKER BARANDIARAN

> ESKORIATZA

### Mendekotasunaren gaineko hitzaldiak izango dira asteon arratsaldean Ibarraundi museoan

Ekainaren 16tik 20ra, mendekotasunaren gaineko hitzaldiak izango dira Ibarraundi museoan, 15:00etatik 17:00etara. Gaur, mendekotasun egoeran bizi diren adinekoen arazoetaz jardungo dute; bihar, osasun eta erizaintza alorretaz; eguaztenean, gaur egun dauden gizarte baliabideetaz; eguenean, lege eta etika alderdiaz; eta egubakoitzean, komunikatzeko eta erlaxatzeko tekniketaz.

> ARETXABALETA

### Aretxabaletarren artean 3.500 gida eta plano berri banatzen ibili da egunotan Udala

Udalerriko gida eta plano berria etxean izango dute dagoeneko aretxabaletar gehienek. Udalak 3.500 gida eta plano banatu ditu asteon. Baserrietara eguen goizean korreo bidez bidali zituzten eta iristear egongo direla dio Kultura teknikari Inma Migelek. Jasotzen ez dutenek udaletxetik edo Arkupetik pasa daitezke. Gidan, besteak beste, herriko datu orokorrak, argazkiak, mapa toponimikoa, intereseko telefonoak eta gida industriala azaltzen dira.

**ARETXABALETA** > UDALA

# Ikastetxeetako gurasoen elkarteek egindako jarduerendako dirulaguntzak eska daitezke

Ekainaren 24a arte izango dute ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek eskaera aurkezteko aukera

M.B. > ARETXABALETA

Ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek egindako jarduera eta proiektuendako dirulaguntzak emateko epea zabaldu du Udalak. Eskaerak aurkezteko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkezten den egunetik hamabost egun natural izango dira. Kontuan hartuta iragarkia ekainaren 10ean argitaratu zela, ekainaren 24ra arte egongo da aukera eskaera egiteko. Dirulaguntzen ematea arautzen dituzten arauak iragarkian aurki daitezke.

**AURREKONTUA, 4.000 EUROKOA**

Aretxabaletako Udalak jakinarazi duenez, programa horren bidez deitutako dirulaguntzen aurrekontua 4.000 eurokoa da. Azaldu du, gainera, jardueren justifikazioak ikasturtearekin lotuta izan behar duela eta diruz lagundutako jardueren faktura originalak edo udal funtzionarioak konpultsatutako kopiak aurkeztu beharko direla, besteak beste.

Jarduerek honako izaera eduki beharko dute: ikastetxearen eskolako programazio orokorraren jarduera osagarriak eta eskola kanpoko programak; hezkuntza, kultura eta kirol arloko jarduerak; hezkuntza zabaltzeko jarduerak; komunitate zerbitzuen sorreraren bidez, elkartearen gizarte eragina handituko luketen hezkuntza proiektuak; eta gurasoak hezteko jarduerak.







Kapitainaren diskurtsoa eta alardearen koreografia bat datozenez talde bakarrak landuko ditu. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > JAIAK

# Bi talde osatu dituzte alardea egokitzeko

## Batek diskurtsoa eta koreografia aztertuko ditu; besteak, parte hartzea nola bultzatu

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Mairuaren Alardearen Elkarteak eta Udalak alardea egokitzeko hausnarketa herritarren aurrean aurkeztu zuen eta 18 lagun izan ziren batzarrean. Ideiak jendaurrean azaldu ostean, bi lantalde osatu dituzte.

Hasierako asmoa zen hiru talde egitea, baina bi besterik ez dituzte osatu. Diskurtsoa eta historia talde batek eta alardearen koreografia beste batek sakontzea zen proposamena, baina asteleheneko bileran biak uztartzea aproposagoa dela erabaki zen. Hortaz, alardearen diskurtsoa eta koreografia biak batean aztertuko ditu lehen taldeak bata bestearekin lotuta daudelako.

Besteak transmisioa eta jendearen partehartzea bultzatzea izango ditu helburu. Horretarako, ezinbestekotzat jo dute herritarrei pixkanaka ematen diharduten pausoen berri ematea alardea gertuago sentitzeko.

**GAUR BILERA**

Batzarrera joan zirenek esku artean zuten dokumentazioa aztertzeko denbora eskatu zuten eta gaur, ekainaren 16an, egingo dute bigarren bilera pauso berriak emateko eta lanean hasteko asmoz.

**LARRAIN DANTZA**

Bi taldeok 2009ko alardeari begira jardungo dute lanean eta aurtengo jaietan, alardean, ez da aldaketarik izango.

Hala ere, jaiak gertatzeko lanean dihardute hainbat lagunek. Besteak beste, jaietako domeka iluntzeko Larrain dantza gertatzen. Horretarako entseguetan parte hartu nahi dutenei jakinarazi nahi diete eguaztenean, ekainaren 18an 20:00etan hasiko direla eskolan eta jaietara bitartean eguaztenero egingo dituztela.

### Bi taldetan banatuta 17 lagun patinatzen

Patinaje ikastaroak harrera ona du Elgetan. Bigarren urtez antolatu dute Egokik eta Elgetako Udalak eta 17 lagunek eman dute izena. Mikel Morras irakaslearen gidaritzapean hainbat ariketa egin dituzte asteon egindako lehenengo saioan. Bakoitzak bere erritmoan eta bere gaitasunen arabera eginez gero onura ugari ekar ditzake kirol modalitate horrek. "Jolasean, koordinazioa, oreka, erresistentzia eta abiadura lantzen dira", adierazi du Mikel Morras irakasleak.



L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > ARGINDARRA

# Transformagailu berria jarri beharko dute aurten herrian

## Oraingoak nahikoa potentzia ez daukalako aldatuko dute, eta Udalaren aurreikuspenen arabera irailean egongo da berria

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Herriko eskolaren azpiko aldean dagoen transformagailu zaharra kendu eta berria jarriko dute datozen hilabeteotan. Hala jakinarazi digu Eusebio Villar alkateak: "Derrigortuta gaude, nahikoa potentzia ez daukalako. Oraindik herriko etxeetan ez dute arazorik izan, baina ezer igartzen hasi aurretik aldatu behar dugu". Izan ere, Gatzagako Udalak argindarra erosten dio Iberdrolari Leintzargi enpresaren bitartez, eta ondoren herritarrei banatzen die. Ez da batere ohikoa, eta Gipuzkoan beste bi herritan bakarrik egiten dute, Oñatin eta Tolosan. Argindarraren banatzailea delako hain zuzen egiten diete jarraipen zorrotza Madrileko Industria Sailetik, eta transformagailu berria jartzera derrigortu dituzte. Alkateak onartu du dirutza handia dela Udalarendako: "Mailegua eskatu beharko dugu, kontu honetarako ez dago-eta dirulaguntzarik".

Ez dute datarik zehaztu aldaketa egiteko, baina alkateak uste du iraila bukatzerako berria jarrita egongo dela.



Gatzagan dagoen transformagailua. MIRARI ALTUBE

**ARAMAIO** > TAILERRA

# Karterak egiteko tailerra eguaztenean

## Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ikastaroa izango da; Ana Muñoak esne kaxekin diru-zorroak egiten irakatsiko die

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Aramaioko gaztetxoak tailer mordoa egiten dihardute azkeneko asteetan. Eskumuturrekoen tailerra egin zuten maiatzaren 18an, txotxongilo tailerra pasa zen eguaztenean, eta orain, karterak egiten ikasteko aukera izango dute.

Datorren eguaztenean izango da hori. Aramaioko ludotekan egingo dute tailerra, 16:15etik 17:30ak bitartean. Ana Muñoa izango dute irakasle eta esne kaxekin egingo dituzte diru-zorroak. "Kaxak moztu ostean, belkroa jarriko diegu. Metal kolorekoak izango dira karterak, kaxen barrualdeko kolorekoak. Dena dela, norberak, gero, nahi duen moduan margotu ahal izango du bere diru-zorroa" azaldu du Muñoak.

Lehenengo Hezkuntzako ikasleei zuzendutako tailerra da, lehenengo maila eta seigarren maila bitartekoei. Dena dela, Muñoak azaldu du beste edonork karterak egiten ikasteko gogoa badu, Ludotekan agertuz gero, tailerrean parte hartzeko aukera izango duela. Azkeneko tailerretan, gutxi gora behera, 24 umek hartu dute parte.



**> FUTBOLA**
Zaleekin Realaren azken jardunaldiaren gainean egin dugu berba **> 16-17**



**> SPIUK OPENA**
Arrasaten egin zuten zapatuan Euskadiko Txapelketako seigarren proba **> 19**

**> ZIKLISMOA**
Bidelan-Kirolgi taldean dabilen Unai Arantzabalekin izan gara, besteak beste, profesional mailara jauzi egiteko ze aukera daukan galdetu diogu bergararrari **> 21**



**PILOTA** > DEBARROKO TXAPELKETA, IRUROK SARIA

# Eskoriatzara, Arrasatera eta Antzuolara joan dira txapelak

**SARI GABE**
Aretxabaletako eta Elgetako pilotariak sari barik geratu ziren

**PAREKATUAK**
Seniorretan ez, baina gainontzeko finalak parekatuak izan ziren

**ZALEAK**
Arrasateko pilotariak oso babestuta egon ziren, baita Antzuolakoak ere



**LURREAN** Antzuolako aurrelari Aitor Mendizabal lurretik pilota eramateko ahaleginean, Elgetako taldeko Xabier Andreu begira duela. JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Eskoriatzako, Arrasateko eta Antzuolako pilotariek jantzi zituzten atzo Debarroko Irurok Sariko txapelak. Txapelak irabazleendako, eta pilota jaialdi ederra Uarkapen batu ziren zaleendako.

Kadetetan, Eskoriatzako Eneko Zubizarreta eta Oier Urrutia nagusitu ziren (22-15), baina ez hasiera ona egin zutelako. Aretxabaletako Oier Mondragon eta Jon Etxeberria 3-8 aurreratu ziren, baina ez zuten asmatu abantaila horri eusten, eta Eskoriatzako aurrelari Oier Urrutia partiduan sartu zenean aurrera egin zuten markagailuan: "Finala irabaztea da egin dugun onena, oso txarto jokatu dugulako", pozik egon arren, partidu amaieran Zubizarreta eta Urrutia zorrotz azaldu ziren kantxan erakutsi zuten joko mailarekin.

**ARRASATE GAZTE MAILAN**

Aurten Arrasateri tokatu zaio Debarroko txapelketa antolatzea. Alde horretatik, Ibai Bolinagak eta Iker Agirregabiriak gainontzekoek baino presio handixeagoa zuten; eta ondo erantzun zuten, Bolinagak, batez ere. "Partidu hasieran banuen beldur apur bat, eskuko minarekin ibili naizelako. Eta, hor ibili naiz, eutsi eta eutsi", adierazi zuen Agirregabiriak partidua amaitutakoan. Hain zuzen, gazte mailako partidua izan zen parekatuena (5-3, 11-12, 13-13, 16-16, 20-18). Eskoriatzako Alex Oiartzabal eta Xabi Agiriano pilota atzera botatzen ahalegindu ziren, baina Bolinaga denera iristen zen, bai aurrean eta baita atzean ere, taldekideari ahal zuen neurrian laguntzen edo tantoa aurrean amaitzen (22-18).

**SENIORRETAN ANTZUOLA**

Emaitzari eta kantxako jokoari begira, seniorretako partiduan egon zen alde nabarmenena. Elgetakoen aurrean, Mendizabal antzuolarrak beste maila batean dagoela erakutsi zuen. Goiko erretratuan bera da lurretik dabilena, baina partiduan zehar bestelakoa izan zen egoera: Xabier Andreuk lanak izan zituen Antzuolako aurrelariari eusten. Ahalegindu zen, baina ez zuen lortu (22-10).

## Aurrelariek egindako lanari esker, txapela

Eskoriatzak, Arrasatek eta Antzuolak euren taldeetako aurrelariek egindako lanari esker eskuratu zuten, neurri handi batean, txapela. Finaletako jokalari onenak izendatzerakoan begi bistan geratu zen hori -antolatzaileek ez zuten dudarik izango-, Oier Urrutia (Eskoriatza), Ibai Bolinaga (Arrasate) eta Aitor Mendizabal (Antzuola) aurreko koadroetan protagonista izan ziren-eta.

Aipatu Oier Mendizabal (Asegarce) eta Aritz Laskurain (Aspe) izan zirela sariak banatzen.



Debarro Txapelketako finalera sailkatu diren talde guztiak, Udal ordezkari eta antolatzaileekin batera. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > REALA

# 'Infernuko' iluntasunean jarraitzera kondenatuta

Ligako azken jardunaldian egiten zuena egiten zuela, Realak Malagaren edo Sportingen hutsaren zain egon behar zuen. Bi talde horiek ez zuten kale egin, eta Realak berdindu baino ez zuen egin Kordobaren kontra (1-1)



Realeko Diaz de Zerio, atzo, partidua amaitutakoan ilun dauden aldageletarako bidean; zaleen l

**GOIENKARIA** > BERGARA

Atzo burumakur erretiratu ziren Realeko zaleak. Burumakur taldeak urte osoko helburua lortu ez duelako, Bigarren Mailan jarraituko duelako. Eibarrek ezin izan zuen Sportingekin (2-0), eta ezta ere Tenerifek Malagarekin (2-1). Gainera, Anoetan jokatutako partiduan Lilloren mutilak bana egiteko gauza baino ez ziren izan. Realak, baina, urteko lana ez zuen atzo hankaz gora bota, lehenago etorri ziren kategoriaz igotzea gura duen talde batek egin ezin ditzakeen akatsak.

Hala, Realaren denboraldiaren gaineko errepasoa egiteko, orainaz berba egiteko eta etorkizunaren gainean galdetzeko hainbat zalerekin izan da ASTELEHENEKO GOIENKARIA.

### Andoni Azkargorta
ENTRENATZAILEA

## "Iazkoa kolpea gogorragoa izan zen, ez dakit dagoeneko ohitu edo egin garen"

"Azken momentura arte eutsi egiten diogu esperantzari, baina neurri handi batean, argi zegoen zer gertatu behar zen. Eibarrek eta Tenerifek ez zuten ezer jokoan, eta talde horiei ezin zaie eskatu Sportingek edo Malagak zuen motibazioa.

Bestalde, esango nuke Kordobaren kontrako partidua urte osoaren laburpena izan dela. Norgehiagoka erabakigarriak izan dituenean Realak kale egin du. Eta hain zuzen, etxeko partiduetan joan zaigu kategoriaz igotzeko aukera. Kanpoan partidu dezente irabazi ditu Realak, baina Anoetan behar baino puntu gehiagok egin digute ihes.

Gauzak horrela, Bigarren Mailan jarraituko dugu, eta kolpe handia izan bada ere, niri askoz ere gogorragoa egin zitzaidan iazkoa, kategoria galtzea; ez dakit ohitzen hasi garen edo... Azkenik, etorkizunari begira nahiko beltz ikusten dut dena, asko arduratzen nau Realaren egoerak. Ez dakit Badiolak ze bide hartuko duen, baina bai, horrek arduratzen nau gehien".

### Agustin Arantzabal 'Gaztelu'
REALEKO JOKALARI OHIA

## "Lana, borroka eta eraginkortasuna beharrezkoak izango dira igotzeko"

"Ezin izan dut azken partidua telebistatik edo irratik jarraitu. Nahiago izan dut partidu bukaeran emaitza jakin eta listo. Argi dago Numantzia, Sporting eta Malaga hobeak izan direla denboraldian zehar. Azken partidura besteen menpe iristean, oso zaila zen igoera lortzea, mirariak gutxitan izaten direlako. Aurtengo esperientzia guztiz baliagarria izango zaie jokalariei igoera lortzeko. Bigarren Mailak ez dauka zerikusirik Lehen Mailarekin eta gogor egin behar da lan igoera lortzeko. Lana, borroka eta eraginkortasuna beharrezkoak izango dira igotzeko. Ea hala den hurrengo urtean...".

### Bittor Arriaran
REALEKO BAZKIDEA

## "Eskolan gutxiegi ateratzen duen semeari lagundu egin behar zaio, ala?"

"Kordobaren kontra berdintzea, neurri handi batean normala ere bada, orduko jokalariek bazekitelako beste futbol zelaietan ze emaitza zeuden, eta horrek asko baldintzatzen duelako.

Neurri handi batean Realari Gasteizko azken hiru minutuetan joan zitzaion kategoriaz igotzeko aukera, eta azken jardunaldian beste zelai batzuetara begira egon behar izatea ez da komenigarriena.

Bestalde, denboraldiari errepasoa egiten badiogu Realak gaizki hasi zuen liga, baina etxeko jokalariek txukun amaitu zuten lehenengo itzulia, igoera postuetatik puntu batera. Gero, taldeak hainbat fitxaketa egin zituen, eta bistan geratu da Lehenengo Mailako jokalariak izateak ez duela mailaz igotzea ziurtatzen.

Datorren denboraldira begira zentzutasuna da Realak behar duena: zer garen jakin behar dugu, zer egin gura dugun, eta horren arabera erabakiak hartu. Nire ustez lehenengo itzuliko planteamendura itzuli behar gara, kanpotik jendea ekarrita Realeko gazte askori ateak itxi dizkiotelako, ezertarako ez.

Amaitzeko, Realekoak izaten jarraituko dugu Bigarren Mailan egon edo Hirugarrenean, eta gogoratu hau futbola baino ez dela. Azken batean, eskolan gutxiegi atera duen semea ez dugu alde batera uzten; kontrara, orduan laguntzen diogu gehien. Ba hemen berdin".

### Mikel Etxabe
EIBARKO JOKALARIA

## "Taldea oso motibatuta joan da Gijonera, Eibarko asko garelako realzaleak"

"Pena izan da Sportingen kontra galdu izana, guretako oso polita izango litzatekeelako Eibarren garaipen batekin Reala kategoriaz igotzea. Izan ere, gutako askok Realean jokatu izan dugu, edo lagun minak ditugu talde horretan. Baina, azken jardunaldian beste batzuei begira egotea gauza txarra da; oso zaila zen gaur Sportingek edo Malagak kale egitea, eta horrela izan da.

Denboraldiari begira, Realak kale non egin duen esatea ez da horren erraza. Errazena da igoerako txartela Gasteizen joan zitzaiola esatea, 89. minutuan ia Lehenengo Mailan zeudelako, eta 94.ean, berriz, gora igotzeko aukera gutxirekin. Baina, liga batek 42 jardunaldi ditu, eta erregulartasunean dago giltza. Gora igotzea gura izaten duten taldeen nahia izaten da azken sei jardunaldietan hor egotea, borrokan. Eta Reala hor egon da, baina...

Eibarri dagokionez, egia esateko komeni baino gehiago sufritu dugu, denboraldi hasierako emaitzekin bazirudielako erraz lortuko genuela kategoriari eustea, eta azkenean larri samar ibili garelako".

### Fernando Juaristi
REALEKO BAZKIDEA

## "Denboraldia hasita etorritako jokalarien artean Martí izan da ekarpen ona egin duen bakarra"

"Logikoena Sportingek eta Malagak euren partiduak irabaztea zen eta hala gertatu da. Eta eskerrak! Reala ez delako kapaz izan Kordobari irabazteko. Hura bai izango litzatekeela tragedia ona! Besteek kale egitea eta Realak ere bai… Aldaketa asko egon dira urtean zehar eta egonkortasuna eta lasaitasuna faltan bota ditut.

**ESANAK**

**"Etxeko partiduetan joan zaio Realari gora igotzeko aukera, izan ere, etxetik kanpora puntu mordoa batu dituzte"**
**Andoni Azkargorta** > Entrenatzailea

**"Ezin izan dut partidua telebistatik edo irratitik jarraitu; nahiago izan dut azkenean emaitza jakin eta listo"**
**'Gaztelu'** > Realeko jokalari ohia

**"Txarto hasi baziren ere, etxeko jokalariek txukun amaitu zuten lehenengo itzulia, igoera postuetatik puntu batera"**
**Bittor Arriaran** > Realzalea



pabesa jaso zuten denek futbol zelaia uzten zuten bitartean. ARGAZKIPRESS

ESANAK

"Gora igo gura duten taldeen nahia izaten da azken sei jardunaldietan lehian ibiltzea, eta hor egon da Reala, baina..."

**Mikel Etxabe** > Eibarko jokalaria

"Urte arraroa izan da; Realak partidu erabakigarrietan kale egin du, eta Alavesen kontrako partidua da adibide garbiena"

**Rafa Mungia** > Kazetaria

"Aurtengo urteak gogortzeko balio behar digu; espero dut Badiolak jarraitzea, gustuko dut"

**Santi Rodriguez** > Realeko zalea

Bestalde, denboraldia hasita etorritako jokalarien artean Martí izan da ekarpen ona egin duen bakarra, eta zoritxarrez justu samar iritsi da azken partiduetara... Ikusi egin behar zer gertatzen den hurrengo urtean. Badiolaren arabera, ekonomikoki taldea larri dago eta bospasei jokalarik alde egingo dute ziurrenik... Zaila izango da proiektu sendo bat osatzea. Gogor egin beharko da lan".

## Rafa Mungia

KAZETARIA

### "Hasiera txarrak asko baldintzatu du denboraldia, eta horrez gain, aldaketa larregi izan dira"

"Denboraldia arraroa izan da. Hasiera txarrak denboraldi osoa baldintzatu zuen eta, horrez gain, aldaketa gehiegi egon dira; entrenatzaileak, jokalariak, fitxaketak... Partidu erabakigarrietan huts egin du Realak, joan den urtean gertatu bezala. Irabazi behar izan duenean, kale egin du eta Alavesen kontrako partidua da adibiderik argiena. Zoritxarrez, jokalari batzuk galtzera ohitzen ari dira eta hori da txarrena, dinamika horretan sartzea. Datorren urtean zer gertatuko den esatera ez naiz ausartzen, Badiolarekin ez dagoelako asmatzerik. Taldeko jokalari onak mantendu eta hainbat postu indartuz gero, posible da Lehen Mailara itzultzea, zaila izango bada ere".

## Gorka Zelaia

ENTRENATZAILEA

### "Partidu hasiera festa bat izan da, baina beste emaitzak ezagutu ditugun heinean, hileta batean bilakatu da"

"Anoetan ikusi dut partidua, eta benetan partidu txarra izan da, Realak gaizki jokatu du. Partidua hasi aurretik Anoetak festa bat zirudien, baina minutuak aurrera joan ahala, eta gainerako partiden emaitzak ezagutuz joan garen heinean, hileta bat bihurtu da hori. Dena den, denboraldiaren giltza zuen partida Gasteizkoa izan zela uste dut.

Hemendik aurrera, Realaren egoera ekonomikoa benetan kaskarra dela ikusita, astearteko Administrazio Kontseiluan zer gertatzen den ikusi beharko da. Nik espero dut Badiolak jarraitzea, berak jarraitzen ez badu nor irtengo da bestela? Eta Lillok entrenatzaile moduan segitzea ere begi onez ikusiko nuke. Uste dut datorren denboraldian derrigorrez igo behar garela: ezin da aurten bezala egin, denboraldi hasieran esan hiru urterako proiektua zela... Hor puntu asko joan zitzaizkigun.

Dena den, uste dut azken erantzuleak, bai onerako eta baita txarrerako ere, jokalariak direla, eta datorren urtera begira, garbiketa handia egongo da. Eta Realak zor handi bat du bere zaleekin. Zaleak dira Realak duen gauzarik onena. Orain hausnarketa sakon bat egin behar da, eta erabakiak hartu".

## Santi Rodríguez

REALEKO ZALEA

### "Reala ez bada igo merezi ez duelako izan da; beranduegi erreakzionatu dutelako"

"Jokalariak gaur indar eta gogo gehiagorekin irten behar ziren zelaira, lehenengo 20 minututan partida erabakita eta Kordobakoak hauts eginda utzi behar zituzten. Dena den, ez bada Reala igo, merezi izan ez duelako izan da, berandu erreakzionatu izan dutelako.

Datorren urtean igo egin behar gara, aurtengo denboraldiak gogortzeko balio behar digu. Espero dut Badiolak jarraitzea, gustatzen zait presidente moduan. Eta jokalariei buruz zer esan? Saiatu dira, sikiera korrika egin dute".

## Juan Jose Alvarez

UNED-EKO ZUZENDARIA

### "Reala ez bada igo merezi ez duelako izan da; beranduegi erreakzionatu dute"

"Etxean, telebista bidez ikusi dut. Aurrez nahiko zapuztuta nengoen eta egia esan ez nuen itxaropen gehiegi gaurkoari begira. Baina gertatu dena ikusita, frustrazio sentsazio hori handitu egin da. Inpotentzia, desengainua, ez da horrenbeste emaitzengatik, baizik eta jokalariek erakutsi duten kasta falta horregatik baizik, kemen falta horregatik.

Uste dut denboraldi hasieran Colemanek aurkeztu zuen proiektua, harrobia zaintzea, berriz ere sustraietara itzultzea eta lehenengo mailara igotzea uztartzen zituena zela bide egokia, eta hori alde batera utzi genuenean okerreko bidea hartu zuen Realak. Ez zait Badiolaren proiektua eta jokaera gehiegi gustatzen.



Xabier Urtzelai

# Zianuroari tragoa ematea moduan

Malagaren edo Sportingen lekuan egon gurako genuke orain, baina ez, laugarren lekuan amaitu dugu denboraldia, saririk jasotzen ez duten taldeen artean, lehena.

Eta, bigarren mailan jarraitzea zianuroari trago bat ematea modukoa da, listu beltza tragatzea modukoa. Ez dira neure berbak –aukeran, gurago dut Reala bigarren mailan, Bittor Arriaranek ondo dioen moduan, futbola futbola baino ez delako–, Juanma Lillok atzoko partidu ostean egindako adierazpenak dira. Normala den moduan, burumakur zen Realeko entrenatzailea; orain dela hiruzpalau aste kontuak egin eta egin genbiltzan, orduan behetik gora zetorren Reala, eta Gijongoak eta Malaga aldekoak hankak dar-dar batean zituzten. Talde txuriurdina, baina, hustu egin da ligaren azken txanpan, Lilloren taldeari gaseosari baino lehenago joan zaio gasa.

**"Azken partiduetan Lilloren taldeari gaseosari baino azkarrago joan zaio gasa"**

Eta hemendik aurrera, zer? Realaren diru-zorroa ez dago koheteak botatzen ibiltzeko. Eta batek daki Badiolak ze asmo izango duen. Realaren presidentearen kalkuluak Reala kategoriaz igotzeko eginda zeuden, baina atzekoz aurrera irten zaio/zaigu jokaldia. Besteak beste, Andoni Azkargorta antzuolarrak agerian utzi du arduratuta dagoela Badiolak egin dezakeenarekin, eta neu bat nator harekin: *salbatzaileak* ere komeni zaion moduan erakusten ditu kontuak.

Dena ez da, baina, ondoko erretratua bezain iluna. Etxeko jokalariek lehenengo itzulian erakutsi zuten lehiakorrak zirela, Arriaranek egin du hausnarketa hori, eta egia da liga hasten denean ez garela hasiberriak izango, iaz moduan. Horrenbestez, eutsi goiari denok (baita Barriolak ere).

# Iturrieta Sagardotegia











Bertako sagardoa

Ekainaren erdialdetik aurrera hasierako jabeekin berriro

Hamarretakoak (asteburuetan)

Plater konbinatuak

Sagardotegiko menua

Menu bereziak

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593






25 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro.
HABEko diplomak. Pertsonalizatutako ordutegiak. Bekak...

08 ikastaroa

matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza
Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

HABEren dirulaguntzaz






**ESKAINTZA**
- EGA
- HABEko 1.,2. eta 3.mailak. HOMOLOGATUTA.
Irailean azterketa ofizialak
- Mintzamena
- Leintzeko euskalkia
- Darabilgun euskara hobetu: okerrak zuzendu, hiztegia aberastu...
- Hitanoa

**MATRIKULA EPEA**
Ekainaren 2tik zabalik

**IKASTAROAK**
Uztaila eta irailean

**BULEGO ORDUTEGIA**
Goizez: 10:00-13:00 / Arratsaldez: 15:00-18:00

Arratsaldez:
15:00-18:00

**Beka sistema daukagu.**
**Informa zaitez Euskaltegian.**

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

**MENDIKO BIZIKLETA** > ARRASATEKO OPEN SPIUK SARIA, GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Aldapan gora indartsuena, eta Ikutixora jaisten trebeena, Asier Apezetxea

## Arrasaten erakutsi zuen ziklista nafarrak Iñaki Lejarretaren atzetik, bera dela jaun eta jabe

## Ederra taldekoek antolatutako Opena irabazita, Apezetxea dagoeneko Euskadiko Txapelduna da



Zigor Urain (Ederra), ibilbideko zati delikatuena atzean utzita. JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Joan den astean Aramaioko Openean Iñaki Lejarretaren itzalpean geratu zen Asier Apezetxea (Conor-Saltoki). Atzo, baina, Lejarreta ez zen Arrasaten, eta Apezetxeak ez zuen bertan behera galdu Openean nork agintzen duen erakusteko aukera: "Baliteke garaipenerako faboritoa ni izatea, baina lokatz askoko lasterketa batean denetik gerta zitekeen. Egia esan, jaitsiera oso arriskutsua zegoen, eta hasieratik distantzia apur bat hartu gura izan dut, ezusterik ez izateko", adierazi zuen helmugan Apezetxeak.

Openeko liderra zuzen zebilen. Aldapan gora ibilbide osoa bizikletan egin zitekeen, baina Ikutixora egin beharreko jaitsiera infernu bilakatu zen askorendako. Bizikleta gainean trebeenek –Ederrako guztiek– bizikletatik jaitsi barik egin zuten jaitsiera, hasierako itzuliak bai, behintzat: "Hirugarren bueltan ikusi dut ez zuela merezi arriskatzen ibiltzeak. Oso labainkor zegoen, nekez domina zitekeen bizikleta eta kolpe on bat hartzeko ez zen asko behar", Igor Bazen (Ederra) berbak dira.

**DENON GUSTURA, EZIN**

Joan den urteko probarekin alderatuta, jaitsierak ikusgarritasunean galdu zuen, gauzak diren moduan. Azken astean botatako euriak ez zuen batere mesede egin, eta batzuek protesta egin zuten, jaitsiera horretan bizikleta apurtu eta min hartu, ezin zitekeela besterik egin esanez. Beste batzuk, berriz, euren saltsan ibili ziren: "Jaitsiera guztiak horrelakoak izan behar ziren; bakoitzak jakingo du zenbat arriskatu", adierazi zuen bigarren sailkatu Joseba Leonek (Ciclos Maestre).

Antolatzaile lanetan burubelarri ibili den eta atzo 18. sailkatu zen Felix Zugasti (Ederra) ere iritzi berekoa zen: "Aldapa behera txarto? Nik aldapa gora izan ditut arazoak, ez aldapa behera!", bromatan. Eta, Haritz Kortabarria (Lizarralde Kirolak) ere inoiz baino hobeto ibili zen jaitsieran: "Aldapa behera ez naiz ondoen moldatzen den ziklista, baina gaur jendea aurreratzen ibili naiz". Lastima aretxabaletarrak bertan behera utzi behar izan zuela proba: "Pena hartu dut, indartsu ikusten nuelako neure burua, eta lasterketa ona egiten ari nintzelako; baina, aldagailua apurtu dut, eta hor amaitu da nire lasterketa".

**sailkapenak**

| ELITE | |
|---|---|
| 1. Asier Apezetxea | 1:52:45 |
| 2. Eneko Lejarreta | 1:59:06 |
| 3. Joseba Leon | 2:01:16 |
| 8. Iñigo Roldan (Ederra) | 2:09:01 |
| 11. Zigor Urain (Ederra) | 2:12:58 |
| 12. Igor Baz (Ederra) | 2:17:58 |
| 14. Felix Zugasti (Ederra) | 2:25:12 |

| JUNIORRAK | |
|---|---|
| 1. Iñigo Gomez | 01:20:44 |
| 2. Omar Fraile | 01:22:43 |
| 3. Erik Melon | 01:22:52 |
| 5. Beñat Kortabarria (Lizar.) | 01:24:58 |
| 6. Markel Arriolabengoa (Lizar.) | 01:28:59 |
| 10. Iñigo Alzola (Lizarralde) | 01:40:40 |

| KADETEAK | |
|---|---|
| 1. Aitor Begino | 00:53:26 |
| 6. Martin Berrizbeitia (Lizarr.) | 01:03:02 |
| 9. Alex Aranburu (Lizarralde) | 01:10:26 |
| 10. Raul Perez (Lizarralde) | 01:11:06 |

| BETERANOAK | |
|---|---|
| 1. Ramon Lekuona | 01:55:05 |
| 2. Juan Alonso | 01:55:45 |
| 3. Jose Angel Lopez (Arrasate) | 01:58:38 |

| EMAKUMEAK | |
|---|---|
| 1. Olatz Odriozola | 01:49:04 |
| 2. Marta Gartzia | 01:51:25 |

**ETXEAN KORRITZEA, ARRISKUTSU**

Ederrako Bazek eta Urainek onartu zuten lasterketa komeni baino indartsuago hasi zutela, eta ondoren etorri zirela ordainak. Bigarren itzulia egin eta gero beherakada izan zuten bi ziklistek, baina ondo errekuperatu ziren gero. Alde horretatik, etxean korritzea arriskutsua izaten da, buruarekin baino bihotzarekin korritzen delako. Aipatzekoa, zelan ez, beteranoen kategorian Arrasateko Jose Angel Lopezek (Bicilocura) eskuratutako hirugarren postua.

## Gipuzkoako Txapelketan, hainbat ordezkari

Euskadiko Opena izatearekin batera, Arrasateko lasterketan Gipuzkoako txapeldunak ere erabaki ziren. Hain zuzen ere, ondoko podiumeko erretratua Gipuzkoako txapeldunena da, kategoria guztietan. Tartean daude Lizarralde kirolak taldeko Martin Berrizbeitia eta Beñat Kortabarria.

Bigarren eta hirugarren sailkatuta, junior mailan Lizarralde Kirolak taldeko Markel Arriolabengoa eta Iñigo Alzola igo ziren podiumera, eta kadetetan Alex Aranburu eta Raul Perez.



Gipuzkoako txapeldunak podiumean; tartean, Martin Berrizbeitia eta Beñat Kortabarria (Lizarralde kirolak). XABIER URTZELAI

**PILOTA** > BURUZ BURUKO TXAPELKETA

# Bengoetxeak erraz menderatu zuen Barriola

## Markagailuan 22-11 gailendu ostean, aurtengo buruz buruko txapelduna da Oinatz Bengoetxea leitzarra

BENGOETXEA
**11-22**
BARRIOLA

**M.B.** > BERGARA
Oinatz Bengoetxeak atzo arratsaldeko buruz buruko txapelketako finala 22-11 irabazi zuen, Abel Barriola gainditu ostean. Partidu bikaina egin zuen eta egindako guztia ondo irten zitzaion. Leitzako bi pilotarien norgehiagoka Donostiako Atano III. frontoian jokatu zen.

Apustuak Barriolaren aldekoak ziren eta pilotari horrek markatu zuen, hain zuzen, partiduko lehen tantoa. Jarraian, baina, bost tanto sartu zizkion Bengoetxeak. Barriola erantzuteko kapaza izan zen, markagailuan berdinketa lortuz (5-5). Hortik aurrera, Bengoetxeak hartu zion berriro aurre eta hamar puntuko aldea atera zion (16-6). Barriolak markagailuko abantaila 16-10 murriztu bazuen ere, Bengoetxeak beste lau tanto egin zizkion, 20-10 lortuz. Esan bezala, azkenean, 22-11 irabazi du. Azpimarratzeko datu bat: Barriolak sei final jokatu ditu jarraian eta guztietan galtzaile atera da.

**DEBAGOIENDARREN IRITZIA**
Debagoeienean zale askok jarraitu zuen atzo Barriola eta Bengoetxearen arteko norgehiagoka; tartean, Bergarako pilota entrenatzaile Reyes Azkoitiak eta Arrasateko Pilota Elkarteko kide Mauri Zubillagak. Biek Oinatz Bengoetxeak irabaziko zuela uste zutela jakinarazi dute.

Azkoitiaren ustez, "Bengoetxeak askoz gehiago asmatu du, oso ondo jokatu du. Abeli partidu hasieratik pilota batzuk gora joan zaizkio. Besteak ondo jokatu du, presionatu egin du eta ondorioz, irabazi du". Gaineratu du Bengoetxeak Barriola baino "presio gutxiago" zuela. Katedrak irabazlearekin izandako jarrera salatu du gainera: "Bengoetxea gutxietsi dutela iruditu zait".

Zubillagak ere Bengoetxeak duen abilezia goraipatu du: "Sotamanoan izugarria da. Gaur egun, inorrek ez dauka abilezia hori. Bengoetxearekin txapela kentzen dut", azpimarratu du. Atzoko buruz buruko finalean "Barriola txikitu" zuela gaineratu du Arrasateko Pilota Elkarteko kideak.



Bengoetxea eta Barriola, atzoko finalaren amaieran. ARGAZKI PRESS

**ESKUBALOIA** > KORPUS TXAPELKETA

# Nesketan gipuzkoarrak eta mutiletan bizkaitarrak nagusi



Oñatiarrak ibarreko jokalariak ibili ziren jokoan, denak oñatiarrak. GOIENKARIA

**M.B.** > OÑATI
Zapatuan infantil mailako II. Korpus Eskubaloi txapelketa jokatu zen Oñatiko Zubikoan. Nesketan, gipuzkoarrak nagusitu ziren; eta mutiletan, berriz, bizkaitarrak.

Eguna Gipuzkoa eta Euskadiko neskekin hasi zen. Lehenengoak irabazi zuten, 19-10. Jarraian, selekzio berdinetako mutilak irten ziren Zubikoa kiroldegiko kantxa berdera. Partidu horretan ere gipuzkoarrak nagusitu ziren, 35-13. Bizkaia eta Nafarroa arteko nesken zein mutilen norgehiagokan lehenengoak irten ziren garaile; 28-20 nesken kasuan eta 36-22 mutilen partiduan.

**MUTILEN FINALA PENALTIETAN**
Arratsaldean 3. eta 4. posturako lehiak eta finalak jokatu ziren. Bi mailetan, Euskadi geratu zen hirugarren; eta Nafarroa laugarren. Mutiletan markagailua 30-29 izan zen eta penaltietan 4-3 geratu ziren; eta nesketan, 23-20. Finalean, neska gipuzkoarrek erraz menderatu zituzten bizkaitarrak, 11-24. Mutilen partidua, berriz, berdinduagoa izan zen: 35-34 geratu ostean, penaltietan erabaki zen. Bizkaitarrak nagusitu ziren 5-4. Sari banaketaren ondoren, *luncha* izan zuten guztiek plazan. Bestalde, zozketaren zenbaki sariduna 4251 dela esan dute antolatzaileek.


GOIENKARIA

### Udaberriko txapelketa Bergaran

Egubakoitz iluntzean Udaberriko txapelketako mutikoen finalak izan ziren Bergaran. Zazpi eta hamalau urte bitarteko ehun pilotari inguruk parte hartu dute otsailetik hona, zazpi kategorietan. Jokin Etxaniz eta Jon Larrañaga arduratu ziren maila bakoitzeko irabazleei sariak emateaz. Txapelketa amaitu ondoren, erretratua atera zuten mutikoek, entrenatzaile eta sari banatzaileen ondoan.

Unai Arantzabal bergararrak bigarren urte du Bidelan Kirolgi taldean. Denboraldi ona egiten dabil; lehenengo postuetan ibili da lasterketa askotan, baina, irabaztea falta izan zaio. Martxoan, Classic Loire Atlantique eta La Roue Tourangelle lasterketa profesionalak jokatu zituen Frantzian. Profesionaletarako saltoaz berba egin du Arantzabalek.

**Unai Arantzabal** > Txirrindularia

# "Profesionaletara salto egitea zaila ikusten dut orain, ez da garai onena"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Unai Arantzabal bergararra Jacan izan da aste bukaeran. Aurtengo denboraldian maila ona ematen ari da; eta, bere ustez, deskantsatzeko denbora gehiago izateak du zerikusia horretan. Ziklismoan duen etorkizuna aztertu du.**

**Zer moduz doa denboraldia?**
Ondo, oso ondo doa denboraldia. Hasieratik gogor hastea izan zen gura nahia, eta horrela hasi ginen. Lehenengo bi hilabeteetan nahiko erregularra izan da lana; gainera postu politak lortu ditugu, goian ibili gara. Errematatzea besterik ez zaigu falta izan.

Gorputzaldi onean nago eta ni pozik nago orain arte egin dudan lanarekin.

**Martxoan UCI mailako lasterketa profesionalak jokatu zenituen, Kepa Varelarekin batera, Frantzian.**
Bai, hala da. Gipuzkoako txirrindulari elkargoak eta Gipuzkoa Moyuak eman zigun aukera izan zen; eta, halako aukera bat ezin da alde batera utzi! Bi lasterketa egin genituen Frantzian; eta, bietan ondo ibili nintzen. Behintzat, lasterketak amaitzea lortu nituen. Gainera, horrelako lasterketatan mordoa ikasten da.

**Nolako mailako lasterketak izan ziren?**
Mailako altuko lasterketak izan ziren. Lasterketa horiek Continental profesional mailakoak dira; hau da, UCI Pro Tour baino maila bat beheragoko taldeek parte hartzen dute. Nafarroako itzulian egoten den antzerako maila zegoen bi lasterketa horietan. Gertatzen da, gaur egun, maila mordoa daudela: Continental profesionalak, Continentalak eta afizionatuak. Hortaz, nabaritu egiten da maila handiko txirrindulariak daudela.

**Lasterketa horiek balio izan dizuete beste lasterketa mota batzuk ezagutzeko. Hau da, errepide lauetako lasterketak.**
Bai, Euskal Herrian lasterketa gehienak mendatetan erabakitzen dira. Frantzian, haizea dela, aldapa txikiak direla... korritzeko modu ezberdina ezagutu dugu.

Guretako oso aberasgarriak izaten dira irteera hauek korritzeko beste modu bat ezagutzen dugulako. Azken finean, txirrindulari bezala hezteko denetik ezagutu behar da.



Unai Arantzabal. GOIENKARIA

DENBORALDIA

**"Maila ona ematen nabil; aurreko postuetan ibili naiz, errematatzea bakarrik falta da"**

LASTERKETAK

**"Euskal Herriko lasterketak mendatetan erabakitzen dira"**

TOURRA

**"Nire faboritoa Cadel Evans da; eta, espero dut Zubeldia eta Astarloza ondo ibiltzea"**

**Nolako entrenamendu motak egiten dituzu?**
Beti bezala nabil entrenatzen. Gertatzen dena da, ikasketak amaitu ditudala eta orain, deskantsatzeko denbora gehiago daukadala. Nik uste dut, aurten izan dudan hobekuntza horregatik izan dela. Deskantsatzeko denbora gehiago daukat eta hobeto errekuperatzen naiz.

Aurtengo urtea ziklismoari dedikatzeko hartu dut; probatzea gura izan dut.

**Bigarren urtea duzu Bidelan Kirolgin. Nola ikusten duzu zure burua taldean?**
Ondo nago. Nire lekua hartu dut taldean eta gustura nabil. Taldekideak elkarri laguntzeko gaude.

**Zein da datozen hilabeteetarako egutegia?**
Uztailean, Bizkaiko Bira korrituko dugu. Gero, Espainiako estatuko txapelketak izango ditugu uztaila erdialdean eta denboraldi amaieran Salamancako Itzulia eta Goierriko Itzulia jokatuko ditugu.

**Zein uste duzu dela zure ezaugarri onena?**
Ez dakit, oraindik ez dut nire burua esprinter edo eskalatzaile bezala ikusten. Nire burua gusturen, aldapa txikitan ikusten dut; baita, talde txikitan ere, esprinta jokatzen.

**Aurtengo denboraldian Andrey Amador dabil ondo. Nabaritzen zaio besteek baino maila handiago duela?**
Bai, gu maila baten gaude eta bera beste maila altuago baten dago. 18 ziklistako taldetxo bat gaude nahiko antzera gabiltzanak; Amador, berriz, gure gainetik dago, lasterketak erraz irabazten.

**Nola ikusten duzu profesionaletara salto egitea?**
Zaila dago. Ziklista asko gaude antzerako mailarekin eta taldeak gero eta gutxiago daude. Profesionaletara jauzi egiteko, lehenengo Continental mailatik pasatu beharra dago. Hortaz, momentu txarra dela uste dut.

Oraindik ez dut eskaintzarik izan, niri behintzat ez didate horren berririk eman!

**Nola ikusten duzu gaur egun ziklismoaren egoera?**
Ez dago oso ondo. UCI Pro Tour sortu zenetik nahastuta dago dena. Gainera, kategoria mordoa sortu dira. Bestalde, kontrol mordoa pasa behar izaten dugu... batzutan ematen du gaizkileak garela!

**Zer iruditu zaizu Contadorrek Giroan egin duen lana?**
Berak erakutsi du dena... Berez, Giroa irabaztea ez da samurra, eta Contadorrek hondartzatik etorrita irabazi duela esan du. Pentsa nolako kalitatea duen ziklista den.

**Contadorrek ez du Tourrean parte hartuko. Nor ikusten duzu irabazle?**
Tourra irabazi dezaketen hainbat txirrindulari daude; baina, nire ustez faborito nagusia Cadel Evans australiarra da. Espero dut, Mikel Astarloza eta Haimar Zubeldia ere ondo ibiltzea. Jokoan dagoen Dauphiné itzulian maila onean dabiltza.

# ZAHARRAK BERRI SAIOA

zahaRRak BERRI

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

Aste honetan:



NOIZ: **Ekainak 18 eta 19**

NOR: **Irene Zenitagoia**
Gorosti loradenda

GAIA: **Larrosa liofilizatua**

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar 943 00 08 34 telefonora

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea:

kutxa URREZKO ZERBITZUA



**> ARRAKASTATSUAK**
Jende asko egon zen Elkartasun Eguneko kontzertuetan **> 24**



**>DANBORRADA**
Arrasateko haurren danborrada, San Juanak datozen abisua **> 24**



**> ELKARRIZKETA**
Jon Odriozola Euskaltel taldeko zuzendari oñatiarrarekin **> 27**

# Elgetako Motor Jaia: zarata atsegina kaleetan

Bi ibilbide egin dituzte: bata Bizkaiko lurretan zehar, eta bestea Debagoienean barna

Antolatzaileak gustura herritarren parte-hartze handiarekin.

**TXOMIN MADINA** > ELGETA

Indar handiagoko edo txikiagoko motorrak, larruzko txupak, kaskoak... Baina batez ere umore ona eta txoko ezberdinak ezagutzeko gogoa. Horiek guztiak bildu ditu asteburu honetan Elgetan egin duten Lehenengo Motor Jaiak. Euskal Herri osotik etorritakoez gain, Kantabriatik eta Huescatik ere hurbildu dira motorzaleak Elgetara jai honetan parte hartzeko.

Zapatua izan zen egunik arrakastatsuena, izan ere, egun osoko ekintzetan parte hartzeko izena batzuk eman bazuten ere, askoz gehiago izan ziren eguraldi onak bultzatuta. Elgetara hurbildu ziren motorzaleak.

**BIZKAIA ETA GIPUZKOA**

Motorzaleen topaketa batek baina, ez luke zentzu gehiegi izango motorrak geldi egongo balira, eta hala, antolatzaileek bi ibilbide prestatu zituzten.

Zapatuko ibilbideak, Bizkaiko lurretara eraman zituen motorzaleak: Elgetatik Elorrio eta Berrizera egin zuten lehenengo, eta han Aspe inguruan ibili ostean, Kanpanzartik Elgetara itzuli ziren.

Domekan berriz, Debagoienean zehar ibili ziren: Arrasate eta Bergarara joan ziren hasteko eta handik, Angiozarko bidea hartu zuten Elgetara bueltatzeko.

Antolatzaileek adierazi zutenez, ibilbide hauekin askotan hain ezagunak ez diren parajeak erakutsi nahi izan dituzte, Aspe eta Angiozar esaterako.

**ROCK-AND-ROLLA ESPALOIAN**

Hiru egunek askotarako eman dute: egubakoitzeko bola-joko txapelketa, zapatuko akrobazia ikuskizuna... Eta nola ez, baita rock-and-rolla ere. Motorzaleak eta herritarrak, denak gerturatu ziren Espaloira Dune Buggy, The Fever eta Fision Boyz taldeak ikustera.

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

Antolakuntza lanetan ibili den Geaxi Ezpeleta motorzale elgetarrak adierazi digunez, oso gustura daude lehenengo jai honek eman duenarekin, eta kanpoko motorzaleak ere halaxe joan direla uste du. Gaineratu du, euren helburua zela jaia ez izatea soilik motorzaleena, elgetar guztiena baizik. Zentzu horretan, asmoa bete dutela adierazi du Ezpeletak, esanez jende asko ibili dela motorren inguruan eta antolatutako ekintzetan. Oraindik baina, ez dute erabaki datorren urtean berriz egingo duten.



Giro ona izan dute motorzaleek asteburu honetan, agurreko ekitaldiko argazkian ikusten den moduan. TXOMIN MADINA

**JAIAK** > HAURREN DANBORRADA

# San Juanak bertan direla iragarri zuen zapatuko haurren danborradak

300 neskatila-mutiko inguruk hartu dute parte aurten, eta herriko kaleetan barna ibili ziren ondo ikasitako Sarriegiren doinuak jotzen.

**TXOMIN MADINA** >ARRASATE

Aurtengo jenerala, Julen Larrañaga, zaldi gainean buru zutela 300 bat neska mutikok Arrasateko kaleak hartu zituzten zapatu arratsaldean. 11 konpainiatan banatuta, denetarik ikusi ahal izan zituzten ibilbide guztian zehar danborrada jarraitu zuten senide, lagun eta herritarrek: soldaduak, eskoziar erara jantzitakoak, kupela jotzen zutenak, gomazko oilaskoak zeramatzaten sukaldariak...

Danborrada ixten, *Oilo-Enea* izeneko karroza joan zen: txikienak zeuden bertan, baserritar jantzita eta danborrada ikusten zeudenei gozokiak jaurtitzen. Arrasate Musikaleko kideak arduratu ziren danborradari musika jartzeaz

**HILABETE ENTSEATZEN**

23 urte bete ditu aurten Arrasateko haurren danborradak, eta azken 17 urteetan bezala SUDC elkartea arduratu da berau prestatzeaz.

Juan Luis Arkauz elkarteko kideak azaldu zuenez, maiatza erdi inguruan hasi zituzten haurrekin entseguak, eta zapatu goizean bertan, entsegu orokorra egin zuten. Iaz bezala, plastikozko danbor joleen konpainia bat ere atera gura izan dute aurten: txikienek osatzen dute konpainia hau, eta Arkauzen hitzetan, gaztetxoen artean danborradarako grina sortzea da helburua.

**HAURRAK, GUSTURA**

Eguneko protagonistak, zalantzarik gabe, haurrak izan ziren. Pozik zebiltzan denak ere, eta eguzkiak momentu batzutan gogor jo arren, antolakuntzakoak fin ibili ziren ibilbidean zehar ura banatzen. Asko entseatu zuten galdetuta, etxean Sarriegiren martxa jarrita bere saioak egin zituela aitortu zuenik ere egon zen.



300 neska-mutiko kolorez bete zuten Plaza danborrada amaieran.. GOIENKARIA




Dani Lopez agroekologiari buruz berbetan. T.M.

**BERGARAKO GAZTETXEA** > ZORTZIGARREN URTEURRENA

# Urteurrena ospatzeko, musika eta hitzaldiak

Dani Lopez madrildarraren eskutik, nekazaritza agroekologikoa izan zuten aztergai zapatuan.

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Bergarako Gaztetxearen zortzigarren urteurrena ospatzeko ekintzen artean, bazkari begetarianoa egin zuten zapatuan, eta ondoren, Dani Lopez madrildarrak nekazaritza agroekologikoari buruz jardun zuen. BAH! *(Bajo el Asfalto esta la Huerta)* ekimeneko kide da Lopez, eta eurek planteatzen duten ustiapen mota alternatiboa zein den eta nola funtzionatzen duen azaldu zuen.

**OBLIGACIONES ETA TURBOSHIT**

Gauean, musika kontzertuen txanda izan zen. Bi talde rocker izan ziren taula gainean aritu zirenak: Arabako Obligaciones batetik, eta Bergarako Turboshiteko mutilak bestetik. Ehun bat ikusle gerturatu ziren kontzertura, eta antolatzaileak gustura agertu ziren erantzunarekin.

**DATORREN ASTEAN, GEHIAGO**

Ospakizunek datorren astean jarraituko dute, besteak beste kale marrazketa tailerrarekin eta antzerki emanaldi batekin.

**ELKARTASUN EGUNA** > KONTZERTUAK

# Musika estilo anitzak helburu bakar baten alde

Elkartasun Egunaren harira zapatuan Arrasateko tabernetan eta Monterron parkean egin ziren kontzertuek jende asko erakarri zuten.

**T.M./I.B.** > ARRASATE

Arratsaldeko bostetan hasi ziren presoen aldeko Elkartasun Eguna zela eta Arrasateko hainbat tabernetan antolatutako kontzertuak.

Ia hogei bat tabernetan, beste horrenbeste talde eta bakarlarik jo zuten, eta estilo guztietako doinuak entzun ziren: punka, 70. hamarkadako rocka, txarangak, doinu lasaiagoak... Aurten gainera, atzerritik etorritako talde batek ere jo zuen, Bordeleko Cri D'Alerte taldeak hain zuzen ere.

**LAU TALDE MONTERRONEN**

Antolatzaileak gustura zeuden, izan ere, iaz ez bezala aurten eguraldia lagun, Monterronen egin ahal izan zituzten gaueko kontzertuak eta 1000 ikusle inguru hurbildu ziren bertara

Taula gainean aritzen lehenak bi talde arrasatear izan ziren: lehenengo The 5 Twisters eta gero Never Surrender.

Peter & The Test Tube Babies taldeko ingelesen txanda izan zen ondoren. 70. hamarkada amaierako punka lantzen dute hauek eta euren abesti ezagunenak eta beste hainbat talderen bertsioak eskaini zituzten, sasoi eta umore ona erakutsiz.

Frontkick punk-rock melodikoagoa lantzen duten berlindarrek eman zioten amaiera emanaldi sortari, eta euren abestiek aise asko ase zuten bertaratu ziren gazte eta helduxeagoen gosea.



Arrasatearrek ireki zuten gaueko kontzertu sorta. GOIENKARIAA


Ezagutzen gaituzu. Aurten ere emango ditugu dirulaguntzak, Nazioarteko Programen bidez atzerrian praktikak edo ikasketak egin ahal izateko.
IZEN-EMATEA MAIATZAREN 15etik EKAINAREN 30era
www.kutxasocial.net
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.
BERMEA 2 URTE
ICF 511 ( 89x156x66 ) cm 425 € 70.975 pta
ICF 411 ( 89x134x66 ) cm 350 € 58.450 pta
ICF 331 ( 89x112x66 ) cm 310 € 51.770 pta
ICF 271 ( 89x91x66 ) cm 285 € 47.595 pta
185 x 60 x 60 mm
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AFC-185
399 € 66.633 pta
aspes
1200 b/min
8 kgr.
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
490 € 81.830 pta
FAGOR
1200b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-1127
365 € 60.955 pta
aspes
1000 b/min
6kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-1026
340 € 56.780 pta
edesa
pirolisis labea HP-7660 X
3 fokoko indukzioa I-300 S
lehen: 1.519 €
Orain 1.090 €
eta gainera ontziteria hau opari
berria
LABEA BITROZERAMIKA STA 1410 X
LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA
360 € 60.120 pta
aspes
TELEBISTA PHILIPS
LTD (TDT) INTEGRATUA
LCD 32" PFL5522D
625 € 104.375 pta
LCD 26" PFL5522D
570 € 95.190 pta.
INDUKZIOA AI 1300 R/X
Touch 3 fokorekin
435 € 72.645 pta
aspes
Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%
Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.
Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK


Prezio hauekin, Toyota bat gidatzea uste baino errazagoa izango da
www.euskoauto.toyota.es
AVENSIS
• Pintura metalizatua
• 9 aire-poltsa
• VSC + TRC (egonkortasun kontrola eta trakzioa)
• Bi zonatara zuzendutako aire-girogailu automatikoa
19.900 €
3 AUTO STOCK-EAN
TOYOTA AVENSIS 1.8 5 ate
AURIS
• Pintura metalizatua
• Aleaziozko hagunak
• 9 aire-poltsa
• Bi zonatara zuzendutako aire-girogailu automatikoa
4 AUTO STOCK-EAN
15.350 €
TOYOTA AURIS 1.4 7 ZP 5 ate
• Pintura metalizatua
• EasyFlat 7 jarlekuen toleskura sistema
• Egonkortasun kontrola + 9 aire-poltsa
• Bi zonatara zuzendutako aire-girogailu automatikoa
22.575 €
6 AUTO STOCK-EAN
TOYOTA COROLLA VERSO Diesela 2.2 136 ZP
Eurokopa dela eta, gidatu Toyota Avensis, Toyota Auris edo Toyota Corolla Verso bat prezio ezinhobean.
Espainiako futbol selezioaren babesle ofiziala.
TODAY TOMORROW TOYOTA
EUSKOAUTO
Pasai Antxo
San Marcos 32 eraikina
Tel.: 943 345 080
Elgoibar
Olaso poligonoa 25
Tel.: 943 747 417
Bergara
Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 23 85
Olaberria
Yurre auzoa, Karob. Poligonoa
Tel.: 943 80 59 24
EURO NCAP www.euroncap.com TOYOTA
GARANTÍA 3 AÑOS o 100.000 Km.
FINANCIAL SERVICES
TOYOTA
Informazioa eta probatzea:
902 342 902
Toyota Auris, BEZa. Garraioa eta matrikulazio zerga barne. Eskaintza baliagarria hil bukaera arte biltegian dauden autoak bukatu arte. Iragarkiko modeloa Auris “Sport” 2.2. Diesela 5 ate. CO2 emisioak (g/km): 131-166. Kontsumo konbinatua (l/100km) 6,2.
Toyota Corolla Verso, BEZa. Garraioa eta matrikulazio zerga barne. Eskaintza baliagarria hil bukaera arte biltegian dauden autoak bukatu arte. Iragarkiko modeloa Corolla Verso Sol 136 ZP. CO2 emisioak (g/km): 164-184. Kontsumo konbinatua (l/100km) 5,2-7,1.
Toyota Avensis, BEZa. Garraioa eta matrikulazio zerga barne. Eskaintza baliagarria hil bukaera arte biltegian dauden autoak bukatu arte. Iragarkiko modeloa Avensis 2.0 Diesela 150 ZP. Wagon Executive CO2 emisioak (g/km): 146-193. Kontsumo konbinatua (l/100km) 5,5-9,2.

ASTE BUKAERA...

## Jon Odriozolarekin




Suitzako Itzulira abiatu aurretik, Oñatin egingo genion erretratua Jon Odrizolari, Maia eta Aimarrekin. MIREIA BIKUÑA

# "Etxetik kanpo egun asko egoten naiz, eta bueltan, familia da inportanteena"

Gewiss taldean Rijs, Berzin, Ugrumov eta Furlan izan zituen taldekide, besteak beste

Bizikletan ibiltzen ez denetik, mendira joaten da paseatzera, edo bestela, perretxikoak batzera

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Jon Odriozola (Oñati, 1970) Euskaltel Euskadi taldeko kirol zuzendaria da. Italiako Giroa bukatuta, Suitzako Itzulira abiatu aurretik egin dugu berba harekin."Oso gogorra da horrenbeste egun etxetik kanpo egitea. Egunero nabil maletak egiten, baina Euskaltel taldeko zuzendariaren lanak dira", esan digu Jon Odriozolak.

Bizikletan ez dela ibiltzen esan digu, baina oraindik gogoan ditu, txirrindulari izandako urteak. "Aloña Mendin hasi nintzen. Gero, amateur mailan, Fagor, Kaiku eta Iberdola taldeetan ibili nintzen. 1995. urtean egin nuen jauzia profesional mailan Gewiss taldearekin. Italian hiru urte egin nituen, eta etxera itzuli nintzenean, Baneston sei urte egin nituen eta Kelmen, azken denboraldia", gogoratu digu.

Txirrindulari zenean ere, egun asko egiten zituen etxetik kanpo, batez ere Italian egindako hiru urteetan; baina, ziklista asko ezagutu eta lagun handiak egin zituen. "1995. urtean Gewiss taldea munduko talderik indartsuena zen, besteak beste, Bjarne Rijs, Eugeni Berzin, Piotr Ugrumov eta Giorgio Furlan nituen taldekide", esan digu Jon Odriozolak. Banesto taldean zegoela, 2001ean lortu zuen profesional mailako garaipen bakarra. Hain justu ere, Urkiolako igoera. Urte hartan gainera, Italiako Giroa, Frantziako Tourra eta Espainiako Vuelta egin zituen. Kelme taldean egindako denboraldian, Alejandro Valverde ezagutzeko aukera izan zuen.

**TELEFONOAN ORDU ASKO**

Txirrindularia zela denboraldia modu batera planteatzen zuen, eta kirol zuzendari denetik, beste modu batera. "Dena den, biak dira oso gogorrak. Hasi nintzenetan, neska-laguna, gurasoak eta anai-arrebak botatzen nituen faltan, eta orain, emaztea, eta seme-alabak. Maiak eta Aimarrek adin polita dute beraiekin jolasteko. Horregatik, etxera itzultzen naizenean, familia da inportanteena niretako, eta beraiekin planak egiten ditut. Kanpoan nagoenean, telefonoz egiten dut berba familiarekin, egunero", dio Odriozolak.

Denbora librea duenean, Araotzen duten baserrira joatea gustatzen zaio. Oñatiko inguruetan bizikletan ez dela ibiltzen esan digu, baina Giroko eta Tourreko etapek inbidia ematen diotela dio: "Batez ere, Dolomitetan eta Alpeetan egiten diren etapak gustatzen zaizkit. Horrelakoetan, gustura hartuko nuke berriro txirrindua". Bizikleta utzi zuenetik onddo bila joaten dela esan digu. "Askotan joaten naiz perretxikotara, erlaxatzeko modua da-eta. Perretxikorik ez dagoenean, mendian ibiltzea gustatzen zait, Aizkorri aldean batez ere".

Suitzako Itzulitik bueltatzen denean, oporrak hartuko dituela esan digu: "Aurten ez naiz Tourrean egongo taldearekin, hortaz, azken hamar urteotan ez bezala, oporrak hartuko ditut uztailean". Jon Odriozolak hurrengo hitzordu garrantzitsua, abuztuaren 30ean: Espainiako Vuelta hasiko da, Granadan.

### "Azkeneko etapetan erregularrena izan delako irabazi du Giroa Alberto Contadorrek"

Euskaltel taldeak, Giroan egindako lanarekin gustura dagoela esan digu Jon Odriozolak: "Lan ona egin dugu, baina azkeneko astean ez gara ihesaldietan sartu. Mendiko etapetan aurrean ibiltzeko txirrindularia falta izan zaigu. Dena den, Giroa oso gogorra izan da, are gehiago, esango nuke Tourra baino gogorragoa izan dela". Dena den, Euskaltel Euskadi taldeko helburuak, Euskadiko Itzulia, Frantziako Tourra eta Espainiako Vuelta dira. Italiako taldeei aurre eginez, Astana taldeko Alberto Contadorrek jantzi zuen elastiko arrosa Milanen. "Ez zegoen faboritoen artean, baina ziklistarik erregularrena izan da, eta horrek eman dio garaipena. Ziklista jatorra eta umila da, eta doai ikusgarriak ditu. Txirrindularitzari mesede egingo dio halako ziklista batek", esan digu. Etorkizunari begira hiru izen aipatu dizkigu: "Alberto Contador, Alejandro Valverde eta Igor Anton dira ziklismoaren etorkizuna".

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza berria salgai garaje itxiarekin. Herri erdi-erdian. Oso eguzkitsua. 12 metro koadroko terrazarekin. Erdi jantzia eta egoera onean. 671 66 01 69

**Aramaio.** Etxebizitza salgai Nardeaga kalean. Deitu telefono honetara: 945 44 51 01

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. Deitu telefono honetara: 659 64 67 38

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Berriztatua eta guztiz jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 943 53 22 19

**Bergara.** 80 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Balkoi handia. Dena kanpoaldera. Berogailu eta igogailuarekin. 652 76 86 68

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Ia berria. Hiru logela, bi bainu, sukaldea, egongela, jangela. Jantzita. Oso eguzkitsua. 205.000 euro. Telefonoa: 664 79 64 97

**Oñati.** 105 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 330.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39

**Oñati.** Apartamentu berria salgai herri erdi-erdian. Garaje eta guzti. Ordainketarako erraztasunak. Deitu telefono honetara: 665 71 42 69

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. 210.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza errentan. Unibertsitate ondoan. 652 73 14 78.

**Granadako** Alpujarran natura ingurune paregabean zortzi lagunendako etxea errentan. Terraza handia ikuspegi ederraz. Prezio interesgarria. Argazkiak hemen: www.blogak.com/losmonteros. Harremanetarako: jasonemendizabal@euskalnet.net edo. 943 79 42 33.

**Jaca.** Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa, bi igerilekurekin (nagusia eta umeentzat) eta bi tenis pistarekin. Inguruan umeendako jolastokia. 665 73 95 65.

**Oñati.** Bi logelako apartamentua ematen da errentan. Deitu 21:30ak eta 23:00ak artean. 699 78 47 49.

**Oñati** Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, bakarrik ikasturtean. 660 40 06 75.

**Peñiscola (Castello).** Lau edo sei pertsonarentzako moduko apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

**Torrevieja.** Apartamentua errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik hurbil. Bi logela, terraza, solariuma, garaje itxia eta elkarteko igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate,** Eskoriatza edo Aretxabaletan etxe txikia errentan hartuko luke neska batek. 635 12 87 82.

**Arrasate.** Abuztutik, eta urtebeterako, Arrasaten errentan hartzeko etxe bila gabiltzan bi pertsona gara. Montse. 636 44 24 40.

**Arrasate.** Etxebizitza behar da errentan Arrasaten irailetik aurrera, hiru lagunentzako. 665 73 12 05 edo 669 85 87 78.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko luke familia batek. Lehenbailehen. 647 10 58 85.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko genuke errentan familia batendako. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Bikote gaztea** etxebizitza errentan hartzeko prest. Bergara, Antzuola, Soraluze edo Osintxun. 663 46 93 60 edo 660 47 58 58.

**Debagoiena.** Autobideko lanetan dabilen langile taldeak etxebizitza hartuko luke errentan (5-6 lagun). 687 26 11 44.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 617 88 20 93.

**Donostia.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Donostian, abuztuko lehenengo eta azken asteetan. 677 98 54 91.

**Gasteiz.** Etxebizitza bila gabiltza, ahal bada uztailean sartzeko. Gutxienez hiru logelakoa. 635 75 25 67.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxea osatzeko. 616 05 97 92.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu telefono honetara: 616 05 97 92.

**Bartzelona.** Datorren ikasturterako neskak behar dira etxea osatzeko Bartzelonan. 615 00 49 70.

**Debagoiena.** Etxebizitza partekatuko nuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Belorrieta auzoan garajea dago salgai. 617 30 50 68.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan erdialdean. 100 euro hilean. 607 99 10 06.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Masterreka edo Santa Marina inguruan. Deitu telefono honetara: 669 63 93 29.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARETXABALETA**

**Sukaldaria behar da plater konbinatuak, ogitartekoak eta pintxoak egiteko.**
**647 05 42 75**

**ARRASATE**

**Sukaldari laguntzailea behar da. Autoa beharrezkoa.**
**669 30 26 86**

**BERGARA**

**Depor tabernak zerbitzari eta sukaldariak behar ditu.**
**629 26 88 51**

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**

**Sukaldean egun osoz lan egiteko pertsona bat behar da.**
**605 72 72 39 (Iñaki).**

**Arrasate.** Emakumea behar da etxean garbiketa lanak egiteko. Egunean bi ordu. Deitu telefono honetara: 649 66 49 85.

**Bergara.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Urte askorako lana da. Deitu telefono honetara: 688 68 18 76.

**Leintz Gatzaga.** Pertsona bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoa ezinbestekoa. Deitu telefono honetara: 607 49 83 50.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaintzeko. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko: garbitasun lanak egin eta paseatzera ateratzeko. Edo arratsaldeetan umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo tabernetan orduka lan egiteko. Deitu telefono honetara: 659 34 68 05.

**Arrasate.** Neska gertu ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 669 95 05 97.

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea gertu. Deitu telefono honetara: 943 08 12 80.

**Bergara.** Bikotea gertu goizez tabernak edo elkarteak garbitzeko. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Bergara.** Emakume esperientziadunak adineko pertsonak zainduko lituzke. Orduka zein etxean bertan bizi izanda. 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu telefono honetara: 664 74 82 97.

**Bergara.** Emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak orduka zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 664 74 82 07.

**Bergara.** Emakumea zerbitzari lanak egiteko prest, tabernan edo jantokian. Atariak garbitzeko prest ere. Deitu telefono honetara: 671 71 90 03.

**Debagoiena.** 25 urteko mutil arduratsua lanerako gertu. Aparejadore titulua daukat. Tabernatan zein nagusiak zaintzen ere lan egingo nuke. Luis Alejandro Rodriguez. 943 71 60 97 edo 943 53 37 86.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua etxe edo tabernako garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo gauez. Deitu telefono honetara: 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua etxeko lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izanda. Deitu telefono honetara: 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Deitu telefono honetara: 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Debagoiena.** Emakume gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest, baita etxeak edo lokalak garbitzeko. Deitu telefono honetara: 646 56 80 22.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. 14:00etatik 21:00etara bitartean. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu. Deitu telefono honetara: 600 89 89 03.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo bertan lo egiteko gertu nago. Deitu telefono honetara: 679 13 74 19.

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizez eta arratsaldez umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 696 84 19 51.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 676 87 64 08.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo umeak zein nagusiak zainduko nituzke. Zerbitzari ere lan egiteko prest nago. 646 56 80 22.

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. Jose. Deitu telefono honetara: 680 75 14 88.

**Debagoiena.** Hamabost urteko esperientzia duen neska zerbitzari lanetarako gertu. 663 65 57 31.

**Debagoiena.** Ikasketak dituen emakume esperientziaduna pertsona nagusi edo gaixoak zaintzeko edo etxeko garbiketak egiteko gertu. Deitu telefono honetara: 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Debagoiena.** Neska gaztea lanerako prest. Esperientzia dut zerbitzari eta garbitzaile lanetan. Deitu telefono honetara: 650 59 93 91.

**Debagoiena.** Paperak dituen esperientziadun emakumea lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin, plantxa egin, josi edo gauetan gaixoak zainduko lituzke. Deitu telefono honetara: 686 52 15 98.

**Debagoiena.** Sukaldean eta zerbitzari lanetan izan ezik, beste edozein lanetarako gertu. 14:00etatik 21:00etara bitartean. 618 82 02 41.

**Emakume** euskalduna astean hiru egunez lan egiteko gertu (bi edo hiru orduz). Abuztua barne. Rosi. Deitu telefono honetara: 943 77 16 01.

**Hortz** protesigilea gertu Debagoienean lan egiteko. Deitu telefono honetara: 635 74 34 55.

**Neska** gertu umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 661 06 07 23.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Eraikuntzako goi mailako ikasketak burutu berri ditut eta Arkitektura egiteko beharrezko oinarri matematiko, fisiko eta mekanikoak behar ditut. Batxilergoko errepasoa arkitekturari begira. Deitu telefono honetara: 652 70 35 29.

**Bergara.** First titulua duen ingeles irakaslea behar dut. Deitu telefono honetara: 943 76 40 54.

**Debagoiena.** Inteligentzia artifizialeko eskola partikularrak hartuko nituzke udan. 652 70 49 10.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Uztailean eskola bereziak. Maila guztiak. Deitu telefono honetara: 630 71 35 83.

**Bergara.** Irakasle ikasketak dituen neska udan eskola partikularrak emateko prest, 6-13 urteko haurrei. Deitu telefono honetara: 650 23 34 98.

**Oñati.** Esperientzia handiko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, udan eta kurtso osoan. Deitu telefono honetara: 943 78 28 43.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Sea Dinghy 2, 2.8 JTDI. 2002koa. 125 ZP, aire girotua, toldoa, bizikletak eramatekoa (3), literak. Sei bidaiarirentzat. IAT 2008ko apirilean. Bateria eta gurpil berriak. 92.000 km. 24.000 euro. Deitu telefono honetara: 605 70 45 50.

### 603. ALOKATU

**Autokarabana** berria errentan ematen dut. Bost lagun bidaiatzeko egokia. Deitu telefono honetara: 695 71 46 88.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. 20 euro. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

**Brako aleman** arrazako txakurkumeak salgai. LOE zenbakidunak. Deitu telefono honetara: 685 69 84 99.

**Setter** arrazako txakurkumea salgai. Jaio berria. Ekain erdialdean emateko. Deitu telefono honetara: 635 20 18 56.

### 703. EMAN

**Katakumeak** oparitzen ditut. Deitu telefono honetara: 943 78 05 13.

**Katakumeak** oparitzen ditut. Gris naparrak (marratuak). Amaia. Deitu telefono honetara: 943 76 21 71.

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra** galdu da Antzuola eta Oñati artean. Tekel arrazakoa eta txikia. 'Siro' du izena. Marroi ilun eta beltza da. Mikrotxipa dauka. Deitu telefono honetara: 676 99 74 00.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Autorako** bozgorailuak salgai. 50 euro. Deitu telefono honetara: 617 13 17 51.

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

**Baxu anplifikadorea** salgai. HH burua 100 watt, Bassamp VS modeloa. Egoera onean. 180 euro. Deitu telefono honetara: 607 21 19 69.

**Baxu elektrikoa** salgai. ESP LTD TA 600Tom Araya. Beltza. Ia berria. Funda eta guzti. 650 euro. Jon. Deitu telefono honetara: 609 41 78 97.

**Bikientzako motxila** salgai. Weego Twin modeloa. Oso ondo dago. Lehen egunetik 6 hilabete bete dituzten artean ibiltzekoa. Edozein lekutan lasai asko ibiltzeko. Deitu telefono honetara: 619 92 91 18.

**Brain Trainning** berria salgai. Erabili barik dago. Deitu telefono honetara: 617 13 17 51.

**Errepideko bizikleta** salgai. Gutxi erabilia. Emakume edo gaztetxoentzat egokia (tamainaz ertaina). Deitu telefono honetara: 635 71 80 28.

**Eskusoinu** handia salgai. Tekladuna. Oso egoera onean. Kutxa barne. Prezio onean. Aukera ona euskal kulturara hurbiltzeko. Deitu telefono honetara: 658 10 59 35.

**Garajeko atea** salgai. Erabili gabe. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 metro. Gaineko finkoa: 0,50 metro. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. Deitu telefono honetara: 605 75 96 11.

**Habia-ohea,** zur-latazko somierra eta bi koltxoi salgai. 150 euro. 656 41 00 08.

**Ilerako plantxak.** Ile apaindegian erositako Gamma Profesional ilerako plantxak salgai. Gutxi erabilita. Deitu telefono honetara: 645 72 58 41.

**Karabina automatikoa** salgai. 22 kalibrea. Ia berria. Deitu telefono honetara: 943 76 56 94.

**Karro-denda** salgai. Alpen Kreuzer. Inertziadun balaztak, autoen gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. 1.100 euro. 615 72 47 43.

**Kobetasonik-erako sarrerak** Ekainaren 20an eta 21ean Judas Priest, Kiss eta abar kontzertuan. Bi egunetarako sarrera 100 euro. 688 63 46 24 edo 946 21 41 15.

**Kutxa gotorra** salgai. 0,70X0,70X1,15 neurrikoa. Egoera onean. 750 euro. Deitu telefono honetara: 656 73 44 72.

**Orbea Arin** bizikleta salgai. 2005ekoa. Euskaltel-Euskadi taldekoaren erreplika. Dura-Ace taldearekin. 54 neurrikoa. 1.700 euro. Deitu telefono honetara: 656 76 89 44.

**Ordenagailua** salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13.

**Samsung** telebista salgai. 29 hazbetekoa. Bost hilabete ditu. Oso egoera onean. Deitu telefono honetara: 618 17 30 87.

**Sehaska** salgai. Egurrezkoa. Koltxoi eta guzti. 90 euro. 605 74 55 65.

**Snowboard** botak (Burton Hail, 10 zenbakia, egoera onean) eta fijazioak (Technine, gama altua, erabili barik) salgai. Dena batera 150 euro eta banatuta, 80 euro bakoitzak. Deitu telefono honetara: 680 44 91 51.

**Solariuma** salgai. Lanpara berriekin. Prezioa adosteko. 678 61 50 40.

**Taladroa** salgai, mahaikoa. Egoera onean dago. 400 euro, negoziagarri. 679 10 95 23.

**Trikitia** salgai. Zero Sette Antico modeloa. Sol-do tonua. Prezio interesgarria. 608 12 38 15.

**Umearentzako karroa** salgai, Trio Chicco markakoa. Kotxe kapota, aulkitxoa eta kotxearendako aulkia, 40 eurogatik hirurak. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

### 806. GALDU

**Bergara.** Umearen jaka bakeroa galdu dut Poligonoan. 669 63 93 29.

**Betaurrekoak.** Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Arrasaten maiatzaren 18 inguruan. Funda berde baten barruan zeuden. 943 79 62 28.

**Ordularia.** Mutiko batek urdin koloreko ordularia galdu zuen Arrasaten maiatzaren 26an. Herriko Plaza eta Gazteluondo ikastetxearen artean. 649 35 35 33.

**Patinetea** galdu nuen Aretxabaletako Arlutz osteko kantxan, ekainaren 7an. Beltza da. 'Unai F.' izena dauka jarrita. Deitu telefono honetara: 666 13 30 57.

**Umearen motorra** utzi nuen, ahaztuta, Aretxabaletako Gernika plazan. 'Naroa' izena dauka atzean jarrita. Deitu telefono honetara: 943 53 30 39.

### 807. AURKITU

**Betaurrekoak** aurkitu nituen Aiba mendi martxan, Zabalaundi inguruan. Tolestu egiten dira. Arrasateko BAZ bulegoan daude. 943 25 20 00.

**LAN ESKAINTZA**

Auzo Lagun

**Taldeentzako sukaldaritzan, garbitasunean eta osasun zerbitzuetan liderra den enpresak ondorengo lanpostua eskaintzen du:**

**GARBITASUN ZENTROEN KUDEATZAILEA**
**(Erref. garbitasuneko kudeatzailea)**

**Lanaldia: osoa**
**Ordutegia: goizez edo arratsaldez. Malgutasuna.**
**Euskara eta ofimatika ezagutzak behar dira.**

**Interesatuek bidali CV erreferentzia adieraziz 140 posta kutxara, 20500 Arrasate edo selec@auzolagun.com e-postara.**

## astea GOITBn

### Astelehena, 16



**> ARTE, tailagileen elkartea jasoko dute erreportajean**
**21:47**

Arrasateko Tailagileen Elkarteak aurten 25 urte bete dituela aitzaki hartuta, Julen Iriondok erreportajea prestatu du. Gaur izango da 21:47an.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea-Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Berbaire.
**16:15** Berbaire.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ikusten.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:15** Animalia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunako.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Kirolari.
**22:45** Berriak.
**23:15** Harmaillatik.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 17



**> Familia harremanak mintzagai**
**22:15**

Oraingo astean familia, eta gizon eta emakumeen arteko harremanak izango dituzte mintzagai euskaldun nagusiek. 22:15ean izango da saioa.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** Animalia.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa.
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Euskaldunok hizketan.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 18



**> Debarroko Pilota Txapelketako, finalak**
**21:47**

San Juanetako egitarauaren barruan, Debarroko Pilota Txapelketa jokatu zen domekan. Ikusi ez duzuenok, aukera izango duzue GOITBn.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Euskaldunok hizketan.
**16:15** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Animalia.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri.
**20:45** Berriak.
**21:15** Ikusten.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** San Juanetako pilota txapelketa.
**23:45** Gaurkoak.
**23.47** Jazzmina.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 19



**> Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan**
**22:15**

Musika zaleok, eguenero duzue hitzordua Goiena Telebistan *Musikantoi* saioarekin. Asteotan ere musika eskaintza zabala izango duzue.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Zaharrak berri.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Marazki bizidunak.
**14:15** Euskal artzainak.
**14:45** Berriak.
**15:15** Euskaldunak hizketan.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ur eta lur.
**16:17** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Kirolari.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazkiak.
19:45 Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Teknopolis.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 20



**> Edurne Ormazabal 'Ilunpean' saioan**
**22:15**

Edurne Ormazabal aurpegi ezaguna da Euskal Herrian. Egun *eitb.com*-eko zuzendaritzako kide da eta Euskadi Gazteako zuzendari izan da 18 urtetan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Ur eta lur.
**14:15** Euskaldunak hizketan.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Musikantoi.
**16:15** Ur eta lur.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** San Juanetako pilota txapelketa.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Ikusmira .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Animaliak.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klip.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> San Juanak, Arrasate Irratian protagonista**
**10:30**

Arrasate Irratian, herriko jaiak izango dira datorren asteko protagonistetako bat. Hain zuzen ere, irratsaio berezia prestatzen dabiltza irratiko langileak, etxean edo lanean daudenei jaiak helarazteko helburuaz.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## asteko hitzorduak

### Erakusketa



ARRASATE

**> Lesbianen mugimenduaren lana, irudi bidez jarraitzeko aukera**

*Bidean: ezkutukotik ikusgarritasunera, 1977-2007* delako panel erakusketa irekiko dute bihar Kulturateko klaustroan, 18:30ean. Aldarte elkarteak antolatu du. Etzi, eguaztena, bisita gidatua egongo da, 19:00etan.

### Ibilaldia



OÑATI

**> Bidegorriak eskatzeko bizikleta martxa egingo dute egubakoitzean**

Txirrinka bizikletazaleen elkarteak egubakoitzean, hilak 20, egingo du bidegorrien aldeko ekaineko bizikleta martxa. Ohi bezala, Oñatiko plaza nagusian batuko dira, 18:30ean, eta herriari itzulia emango diote.

### Zinema



ELGETA

**> 'Amor a quemarropa' errepideko filma emango dute etzi Espaloian**

Quentin Tarantinok idatzitako *Amor a quemarropa* filma emango dute, 21:30ean. Clarence eta Alabama prostituta ezkondu egingo dira. Kokainaz betetako maleta batekin ihes egitea erabakiko dute…

## gertutik




Iker Barandiaran
Kazetaria

## "Ezusteko kontzertu baten mikrofonoaren ardura izan nuen"

**MIREN ARREGI** > BERGARA

**Eskarmentudun kazetaria da Iker Barandiaran arrasatearra. 1993an hasi zen kolaboratzaile lanetan *Arrasate Press*-en eta ordutik hainbat kolaborazio eta lan egin ditu euskal Komunikabideetan: *El Tubo* musika aldizkarian jardun zuen lehenik eta behin. *Gara*-ko langile ere izan zen eta egun Goienan dihardu. Musika du afizio eta musikaz ere idazten du.**

**Kontabilitatea eta administrazioa ikasi zenituen lehenik…**

Bizitzako gora-beherak tarteko kontabilitatea ikasi nuen ETEOn. Ikasketak amaitu nituen arren, ez naiz tituluaren bila joan eta ez daukat horretan aritzeko asmorik gainera. Hori bukatu bezain laster Leioara joan nintzen Kazetaritza egitera.

**Bigarrenarekin asmatu zenuen, beraz?**

Hori da gustatzen zaidana. Gainera, Bilboko bost urte haiek nire bizitzako urterik onenak izan ziren, ez dizkit inork kenduko.

**Musika duzu afizio, etxean jaso duzu zaletasun hori?**

Nire etxean ez dago zaletasun berezirik, baina nerabezarotik dut musika gustuko eta baita kontzertuak ikustea ere. Hori da nire zaletasunik handienetarikoa.

**Hala ere, ez duzu inoiz instrumenturik jotzen ikasi. Arantzarik ez duzu horregatik?**

Egia esan ez, musika entzuten disfrutatzen dut. Hala ere behin inprobisatutako kontzertu performance baten mikrofonoaren ardura izan nuen. Programatuta zegoen kontzertu batek huts egin zuen eta antolatzaileok irten ginen zerbait inprobisatzera, instrumentu eta guzti. Jendea zur eta lur gelditu zen.

**Zaletasun hori tarteko, liburu eta DVD bat ere plazaratu zenituen…**

*Hamar Elkarrizketa Putz* aldizkarirako egin nituen elkarrizketa batzuekin osatutako liburua da; eta DVDa RIP taldeari omenaldia.

**Urte hauetan ezagututako zein pertsonarekin gelditukо zinateke?**

Nire *Hamar Elkarrizketa* liburuko protagonista gehienekin.

kuxkuxeroa



Txomin Madina

# Hainbeste gauza batera ez, mesedez!

Horixe pentsatuko zuen batek baino gehiagok asteburu honetan, batez ere Arrasate inguruan bizi direnek. Izan ere, zapatu honetan, nora joan, zer egin, zer ikusi edo zer aldarrikatzeko aukera asko izan dira.

Baten faltan, **bi Elkartasun Egun:** presoen aldekoa bata, Gobernuz Kanpoko Erakundeena bestea. Batak besteari itzala egin beharrean, zergatik ez datorren urtean bi asteburu ezberdinetan banatu? Eta arratsaldean haurren danborrada.... Haurrena, edo gurasoena. Izan ere garai

**Kiroletan ere dena batera: futbola eta pilota. Asteburua atsedenerako dela? Nork esango luke...**

baten horrelakoetan gozokiak jaurtitzen zituztenean, umeak izaten ziren lurretik bueltaka altxor preziatuaren bila ibiltzen zirenak. Zapatuan baina, gurasoak ikusi genituen zeregin horretan buru belarri. Gero, gozokiekin pure egingo al diete seme alabei?

Asteburuan dena batera izan dugunaren seinale, kirola: **Reala ala pilota?** ETB1 ala ETB2? Anoeta ala Atano III.a? Batean, eta bestean debagoiendarrak ugari. Ia ia, txuriurdinek igotzea lortu ez izanak eragin dituen negar malkoak beste...

Eta kontzertuak, eta hitzaldiak, eta **motorzaleak Elgetan,** eta ezkontzak nonahi... Nahiko nituzke ikusi nik europar modernoak, eginbehar guzti hauekin astean lanerako 65 orduren bila...

((112))
SOS DEIAK



**Euskal Erromeriaren gaineko hitzaldia Bergaran.** Joan den egubakoitz arratsaldean euskal erromeriaren gaineko argazki erakusketa zabaldu zuten Bergarako Aroztegi aretoan. Horrekin batera, Jose Ignacio Homobono irakasleak hitzaldia eskaini zuen.



**Kirol jaialdia Eskoriatzan.** Zapatuan Eskoriatzako Kirol Elkarteak bere eguna ospatu zuen bigarrenez. Mota askotariko ekimenak izan ziren egun osoan herrian; tartean, eguerdi partean egindako motor zaleen konzentrazioa. Jende asko hurbildu zen Herriko Plazara, motor ikusgarriak ikustera eta bide batez, argazkiak ere ateratzera. Denetarik ikusi ahal izan zen han: motor klasikoak zein gaur egun merkatuan dauden motor indartsuak. Motor zaleen bilkurak iraun zuen bitartean, musika entzun ahal izan zuten han izan zirenek.



**Saskibaloi jaia Antzuolan.** Zapatuan saskibaloi jaia egin zuten Antzuolako ikastetxean. Egun osoa eman zuten jolasten. Hiru mailetan egon ziren gaztetxoak banatuta: 9 eta 11 urte bitartekoak, 11-12 urtekoak eta 16 urtetik gorakoak. Gazteenen artean, antzuolarrak nagusitu ziren; 11-12 urte bitartekoetan, urretxuarrak eta nagusienen artean, Lakers taldekoak.




**Frontenis txapelketa Bergaran.** Zapatu goizean frontenis txapelketako final erdiak eta finala jokatu ziren Bergarako Udal pilotalekuan. Patxi Vallejo eta Kepa Gartzia izan dira txapeldunak; Pako Sierra eta Gorka Rodriguez, berriz, bigarren geratu dira. Txapelketan 20 bikotek jokatu dute.



**Bertso afaria Osintxun.** Zapatuan bertso afaria egin zuten Osintxuko Txuringo jatetxean. Guztira, 46 lagun izan ziren Xabi Paiaren eta Andoni Egañaren bertsoak entzuten. Saioak bi ordu inguru iraun zuen. Han egondakoak gustura egon zirela jakinarazi digute.



**San Antonion jaietan.** Lasai egoteko denbora larregi ez dute izan aste bukaeran Bergarako San Antonio aldean bizi direnek: jaiak izan dira han. Prestatutako egitarauaren barruan, zapatu goizean animalien txanda izan zen: basurdeak, poniak eta zezentxoak ekarri zituzten. Umeek ederto pasa zuten ponien gainean igotzean eta hala moduz ibiltzean. Haurrez gain, helduren bat edo beste ere animatu zen poni gainera igotzera. Poni gizajoak momentu horretan zer pentsatuko zuen, ordea, ez dakigu.

## Zorion Agurrak


OÑATI
**Aintziñe Korkostegi**
Ekainaren 10ean urtebetetzea. Zorionak! Oso ondo pasau zure egun polit honetan. Asko zelebrau eta badakizu trago bat sor dozu eee jeje. Zorionak zure kuadrillian partetik. Patxo asko politta!


ANTZUOLA
**Amaia Mundiñano**
Ekainaren 11n. Asteazkenean aurreskua antzuolatarren kontu. Zorionak eta ondo pasa, Etxarriko trikitilarien partez.


OÑATI
**Irune Zumalde**
Ekainaren 11n, 27 urte. Zorionak kuadrillian partez xalada!


ARETXABALETA
**Iratzeder Mendikute**
Ekainaren 12an urtebetetzea. Zorionak tia! Ondo pasa eguna eta aber noiz prestatzen duzun txokolatea. Patxo haundi bat Sofiaren partez.


BERGARA
**Uxue Zubizarreta**
Ekainaren 12an, osintxuarrak 5 urte beteko ditu. Zorionak etxekoen partetik.


BERGARA
**Ane Larrañaga Arregi**
Ekainaren 1ean, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik.


ARAMAIO
**Maider Gardoki Telleriarte**
Ekainaren 14an, 8 urte. Etxekoen partetik eta Bergarako familiaren partetik, zorionak!


BERGARA
**Anartz Calleja**
Ekainaren 14an, urtebete. Zorionak morrosko! Pa handi bat aitatxo eta amatxoren partetik eta Aretxabaletako eta Iruneko familiaren partetik.


ARRASATE
**Ainhoa Astigarraga**
Ekainaren 14an. Zorionak etxekoen partetik. Patxo potolo bat!


ARRASATE
**Iban Ayesa**
Ekainaren 16 urtebetetzea. Zorionak aita! Jon, Manex eta Irati.


BERGARA
**Nerea Larrañaga Arregi**
Ekainaren 16an, 11 urte. Zorionak etxekoen partetik.


ELGETA
**Malen Campos**
Ekainaren 17an urtebetetzea. Zorionak etxekoen partez!


OÑATI
**Ibai Telleria**
Ekainaren 17an, 25 urte. Zorionak etxekoen partetik.


ELGETA
**Leire Belamendia**
Ekainaren 17an urtebetetzea. Zorionak etxekoen partetik!


OÑATI
**Unai Muñoz**
Ekainaren 17an, 7 urte. Zorionak txiki!! Ondo-ondo pasau zure eguna eta patxo haundi bat tia Kris, tio Andoni eta Iratitxon partetik!


BERGARA
**Maddi Oregi Alberdi**
Ekainaren 18an, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik, bereziki Ander.


ESKORIATZA
**Iker Fernandez Sedano**
Ekainaren 18an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat, gurasoen eta Juneren partetik.


ARETXABALETA
**Gorka Etxabe**
Ekainaren 19an urtebetetzea. *Txarli*, elegante pasau zure eguna!


ARRASATE
**Oier Etxebeste**
Ekainak 19an, 6 urte. Zorionak mutikote! Ibai, Aimar, Jurgi eta etxekoen partetik.


OÑATI
**Agurne Telleria**
Ekainaren 21ean, 20 urte. Zorionak etxekoen partetik.


OÑATI
**Arantzazu Ezkibel**
Ekainaren 22an urtebetetzea. Zorionak *morenaza*! Ondo pasau eguna eta akordau Oñatiko bonboiak ekartzen! Lankideak.


BERGARA
**Kristian Rodriguez**
Ekainaren 18an, 11 urte. Zorionak, etxekoen partetik eta egun ona pasatu.


BERGARA
**Jaione Loiti**
Ekainaren 16an, urtebetetzea. Maria, Josu eta Iñakiren partez, zorionak amatxo!

## jaiotakoak


**Izaro Sanz Fernandez**
Aretxabaleta > 3,520 kilo. Ekainaren 12an. Gurasoak: Esther (Aretxabaleta) eta Iñaki (Arrasate). Argazkian, Izaro, gurasoekin.


**Andoni Gomez Familiar**
Arrasate > 3,220 kilo. Ekainaren 2an. Gurasoak: Marta (Bergara) eta Ritxar ( Arrasate). Argazkian bere arreba Ainararekin.


**Markel Elorza Martin**
Oñati > 3,240 kilo. Ekainaren 10ean. Gurasoak: Monika (Oñati) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Markel jaioberria, amarekin.


**Uxue Garitonandia Capellan**
Eskoriatza > 3,300 kilo. Ekainaren 10ean. Gurasoak: Marian (Arrasate) eta Angel (Arrasate). Argazkian, Uxue jaioberria, aitarekin.


**Markos Luque Carmona**
Antzuola > 3,250 kilo. Ekainaren 10ean. Gurasoak: Mari (Antzuola) eta Patxi (Antzuola). Argazkian, Markos, Mari amonarekin.


**Ramiro Ferrero Rico**
Oñati > 3,600 kilo. Ekainaren 9an. Gurasoak: Lorena Beatriz (Oñati) eta Claudio (Oñati). Argazkian, Ramiro, gurasoekin.


**Paulo Elkoroberezibar Belastegi**
Bergara > 2,750 kilo. Ekainaren 9an. Gurasoak: Monika (Bergara) eta Mikel (Bergara). Argazkian, Paulo, amarekin.



ASTELEHENEKO
Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-06-16

**Xabier Mendiguren** > Editorea eta idazlea

# "Nire eskolak 'Argia' eta 'Susa' aldizkariak dira"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Xabier Mendiguren Elizegi Elkarreko editorea da aspalditik. Mota askotako liburu ugari argitaratu ditu. Kulturaren zale handia, kulturarekin berarekin gozatu egiten du. Bere bloga euskal internauten aurrean irakurriena izan zen.**

**Egunero Txindoki ikusteko premia daukazu?**

Gauza estetikoa izan daiteke, baina seguruenik beste zerbait ere. Itsaso ondoan bizi direnek diote ezin direla itsasoa ikusi barik bizi. Nik, berriz, etxetik atera eta berehala Txindoki ikusten dut. Agian neuk ere faltan botako nuke Txindoki.

**Noiz erabaki zenuen futbolean jokatzen baino irakurtzea gustukoago zenuela?**

14 urtera arte futbolean asko jokatu nuen. Gerora, talde federatu baten sartzen konturatu nintzen ez nintzela jokalari ona, eta uzten joan nintzen. Aldi berean deskubritu nuen liburuen mundua, eta gero eta alferragoa bihurtu nintzen. Txiki Begiristainekin jokatzen nuen.

**Txikitan margotu ere egiten zenuen. Ez duzu jarraitu?**

Bai, txikitan banuen esku pixka bat, baina sormena, berriz, gutxitxo. Utzi nuen; jarraituz gero, zeinek daki!

**Zer nolako oroitzapenak dituzu Urretxuko Udal Euskaltegian irakasle izan zinenekoak?**

Onak ditut, baina han konturatu nintzen euskara gutxi zekitenei Nor-nori-nork eta antzekoak azaltzen txarto pasatzen nuela. Ikasten ez bazuten, neure errua izango zen!

TEST-A

**Herria:** Beasain. **Adina:** 44 urte. **Ikasketak:** Euskal filologia eta Hispanikoa. **Zaletasunak:** Irakurtzea, zinema, eta kultura ikuskizunak. **Bete duzun amets bat?** Ez naiz batere ameslaria. Euskal kulturaren alde bizitzea. **Zer amets daukazu betetzeko?** Ume bat izatea. **Bidai zalea zara?** Gutxi mugitu naiz Euskal Herritik kanpo, denbora faltagatik eta alperkeriagatik. **Disko bat?** JC Perezen *Hau berua* edo *Atlantic River*.

**Noiz hasi zinen euskaraz bizitzen?**

1981 aldera, ikasten nenbilela, hilzorian zegoen herri batetako kide nintzenaren kontzientzia piztu zitzaidan, eta euskara berreskuratzeko erabaki hartu nuen. Ordura arte, berdin zidan herriak eta euskarak.

**Eta noiz hasi zinen idazten?**

15 urterekin gazteleraz idazten nuen eta tarteka sari batzuk jaso nituen. Euskaraz idazten 18 urterekin hasi nintzen, eta hasieran gogorra izan bazen ere, 19-20 urterekin idatziak kaleratzen hasi nintzen. Bi eskola izan nituen: batetik, *Argia* aldizkaria, eta bestetik, *Susa*, orduan oraindik aldizkaria zena. Biak eman zidaten erreportajeak eta ipuinak eta argitaratzeko aukera.

**Editore hasi berri, idazle handiekin lan egin zenuen...**

Bai, 23 urterekin hasi nintzen editore lanean, eta oso lotsagabea eta ausarta nintzen. Orain pentsatzen dudan bakoitzean! Martin Ugalde, Sarrionandiaren eta liburuak zuzentzen!



**ALAIA** Oso umore ona dauka Xabier Mendiguren Elizegik. IKER BARANDIARAN

## ai, ene!



### Uholde sasoirako

Aurtengo udaberrian izan ditugun uholdeak direla-eta, bati baino gehiagori etxeraino sartu zaio ura. Aretxabaletan, esaterako, batek baino gehiagok aurrekontua eskatu du horrelako etxebizitza bat erosteko.

http://www.yupifotos.com

## biharamuna

Iñigo Biain

### Erregaiaren greba

Aste honetan beste gairik ez da izan jendearen ahotan: garraiolarien greba. Izan ere, erregaien prezio igoera dela eta, arrantzaleek, nekazariek, taxi gidariek, kamioi gidariek, eta beste hainbat gremiok lan uztea egin dute estatuan. Greba iragarri zenean, komunikabideek gabezia apokaliptikoak aurreikusi zituzten, eta kontsumoa errekorreko zenbakitara igo zen, denda eta gasolindegiak hutsik utziz. Beraz, grebaren jatorri izan den produktu preziatua gehiago saldu da aste bakar batean hilabete osoan salduko litzatekeena baino, horrek suposatu duen milioika euroren mugimenduarekin. Baina horrez gain, saltoki handiek euren biltokiak erabat hustu dituzte diru-kaxak bete bete eginez. Gidariek, momentuz, ez dute onurarik atera, baina ez dut zalantzarik zerbait lortuko dutela (erregaien jaitsiera ez bada, diru-laguntza publikoak izango dira). Beraz, alde guztiek aterako dute onuraren bat greba honetatik ... Alde guztiek ez, lehen sektoreko langileak eta hiritar xumeak izango baitira beste berriz, gerrikoa estutu, eta gainontzekoen poltsikoak beteko dituztenak. Baina tira, jende xumea futbolarekin eta pilotarekin dago anestesiatuta aste honetan!



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
| --- | --- |
| +19 | +14 |

Giro ilun eta euritsuarekin hasiko dugu astea. Zeruan hodei beltz lodiak izango dira; edonon zaparrada mardulak utziko dituzte.

www.euskalmet.net



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko : 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Himnoak
Eibar I EIBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Reala I REAL
Real Union I UNION
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU
Herrikoia
Bagare I BAGARE
Desde Santurce a Bilbao I DESDE
Ikusi Mendizaleak I MENDI
Pintxo-pintxo I PINTXO
San Simon eta San Judas I SAN

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena I KODEA

1,2,3,4...Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Iuep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu...Ansar I ANSAR
Hartu...Argentinarra I ARGEN
Hartu...Mexikarra I MEXIKO
Hartu...Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAU1 MUSKARIA AIZKORAK
NUKLEAR KALABERA1 EGUZKILORE3
SORGIN POPATIK KAPUTX

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN ➠ www.smsoinu.com